



# Gorputza lehen lurralde gisa: Mesoamerikako defendatzaileen mugimendura hurbilketa

Ane Badiola Campos

Tutoría / Tutorea

Ane Irene Del Valle Loroño



Esta publicación ha recibido financiación de aLankidetzta - Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.  
Argitalpen honek eLankidetzta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantziazioa jaso du.



---

Máster Oficial en Desarrollo y Cooperación Internacional / Garapena eta Nazioarteko Lankidetzta Master Ofiziala

Trabajo Fin de Máster / Master Amaierako Lana  
Curso 2021/2022 Ikasturte

Gorputza lehen lurralde gisa: Mesoamerikako defendatzaileen mugimendura hurbilketa  
Ane Badiola Campos

Tutoría / Tutorea: Ane Irene Del Valle Loroño

Hegoa. Trabajos Fin de Máster, n.º 79 / Master Amaierako Lanak, 79. zkia.

Fecha de publicación: noviembre de 2022  
Argitalpen data: 2022ko azaroa

---



Hegoa  
Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional  
Nazioarteko Lankidetzta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua

[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Edificio Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81  
48015 Bilbao  
Tel.: (34) 94 601 70 91

UPV/EHU. Biblioteca del Campus de Álava / Arabako Kampuseko Liburutegia  
Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: (34) 945 01 42 87

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa  
Plaza Elhuyar, 2  
20018 Donostia-San Sebastián  
Tel.: (34) 943 01 74 64



Esta obra está bajo una Licencia Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)

Agiri hau Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-SA 4.0)  
Creative Commons-en lizentziapean dago.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA

# “GORPUTZA LEHEN LURRALDE GISA: MESOAMERIKAKO DEFENDATZAILEEN MUGIMENDURA HURBILKETA”

MASTER AMAIERAKO LANA

Kurtsoa: 2021-2022


**Ane Badiola Campos**

Tutorea: Ane Irene Del Valle Loroño

**Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren Masterra**

Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Institutua, Hegoa

Euskal Herriko Unibertsitatea



Ilustrazioaren egileak: Bea Aparicio eta Myriam Cameros, Defensoras Latiendo con la Tierra liburutik hartuta.

*Familiari, lagunei, testigantzak nirekin konpartitu eta prozesu  
hau aurrera eramatea posible egin dutenei*

Sanando tú, sano yo; sanando yo, sanas tú: tal es la reciprocidad de la sanación. Sanar desde mi territorio cuerpo-tierra.

LORENA CABNAL

# AURKIBIDEA

1.	SARRERA .....	1
2.	IKERKETAREN PLANTEAMENDUA.....	2
3.	MARKO TEORIKO KONTZEPTUALA .....	3
3.1.	EKOFEMINISMOA.....	3
3.1.1.	Ekofeminismoa definitzen .....	3
3.1.2.	Ekofeminismoaren hastapenak .....	5
3.1.3.	Ekofeminismoaren korronteak .....	6
3.2.	EMAKUME INDIGENEN EKARPENA: FEMINISMO KOMUNITARIOA.....	10
3.2.1.	Abya Yalako feminismo komunitarioaren nondik norakoak .....	10
3.3.	EKOFEMINISMO INDIGENAK: GORPUTZ-LURRALDE-LUR DEFENTSA KONTZEPTUAREN IKUSPEGIA.....	14
3.3.1.	Kontzeptuaren aurrekariak.....	14
3.3.2.	Zapalkuntza bikoitza adierazteko kontzeptua: Gorputz-lurralde-lurra.....	16
3.3.3.	Gorputz-lurralde-lurra deskolonizatzearen beharra.....	17
4.	ASPEKTU METODOLOGIKOAK.....	19
4.1.	Markoen analisia .....	20
4.2.	Elkarrizketak .....	20
4.3.	Talde eztabaida.....	22
5.	IKERKETA ENPIRIKOA: GORPUTZ-LURRALDE-LURRAREN KONTZEPTUA PRAXIAN: DEFENSORAS MUGIMENDUAREN KASUA .....	25
5.1.	Marko motibazionala: nortzuk dira giza eskubideen emakume defendatzaileak? .....	25
5.2.	Marko diagnostikoa: zein da IM-Defensorasen gatazka? .....	28
5.2.1.	Mesoamerikako emakume defendatzaileen gatazkaren testuinguruaren irakurketa.....	28
5.2.2.	Arazoak .....	31
5.2.3.	Gatazken ardatzak .....	35

5.2.4 Antagonisten identifikazioa .....	36
5.3. Marko pronostikoa: etorkizunari begira zeintzuk dira mugimendutik aurkezten diren erronkak?.....	37
5.3.1. Erronkak .....	38
5.3.2. Aldarrikapenak .....	39
5.3.3. Estrategiak.....	39
5.4. Nola ikusten da <i>defensoras</i> mugimendua Euskal Herriko feminismoaren begiradatik? 40	
6. ONDORIOAK.....	46
7. ERREFERENTZI BIBLIOGRAFIKOAK.....	49
8. ERANSKINAK .....	57



## 1. SARRERA

Garapena gero eta gehiago kuestionatua izaten ari den gizarte batean bizi gara gaur egun. Garapena soilik ildo ekonomikoaren baitan neurtu eta sailkatzen dela uste dute diskurtso askok. Zeren arabera erabakitzen dira herrialde garatuak ala azpigaratuak diren? Nazio Batuen Erakundearen (2021) datuek diotenaren arabera, Latinoamerika eta Karibe bezalako herrialde azpigaratu batean, nekazaritza familiarrak, nekazal lurren %81a ordezkatzeko dute eta horrek gutxi gora behera %27-%67 arteko produkzio osoa bermatzen du. Datu honekin, eskualde horretako biztanleak lurrarekin eta nekazaritzarekin estuki lotuak daudela eta lana sektore horren baitan ateratzen dutela antzeman dezakegu.

Bestalde, ondoren aipatuko dudako datua jakin ostean, ezin dezakegu beste alde batera begiratu. Esan beharra dago datu hauek gure atentzio osoa jaso dutela eta funtsezkoa izan dela ikerketa hau aurrera eramateko orduan. Global Witness-eko (2018) emaitzen arabera, mundu osoko aktibistak eta mugimendu sozialetako liderrak biolentzia jazarpenaren eta zapalkuntzen biktimak dira, egun. Ingurugiroaren alde egiten duten aktibistak ez dira salbuespena. 2017. urtean 207 defendatzaile erailak izan ziren haien lurra, basoarekin loturiko bizitza eta errekurso naturalak babesteagatik. Kasu hauen %60a Latinoamerika eta Kariben gertatu da.

Honen aurrean, munduko txoko desberdinetan uneoro zapaltzen digun sistemaren aurkako proposamenak sortu dira eta honek, mundua beste ikuspegi batzuekin ulertzeko milaka moduri ateak zabaldu dizkio. Proposamen horiek, neoliberalismoaren diskurtsoa kolokan jartzen dute eta mendebaldeko garapenaren modeloa kuestionatzen dute. Bizitzari eta berau osatzen duten elementuei garrantzia ematen diete, bizia erdigunean jarritz.

Horregatik, interesgarria iruditu zaigu Mesoamerikako emakume indigenen erresistentzia irakaspenak eta *gorputzaren lurraldea* eta *lurraren lurraldea* defentsarako kontzeptuak aztertzea. XV. mendearen amaieratik XVI. mendera bitartean, kontinente horretako lurraldeak kolonizatuak izan ziren eta gaur egun enpresa transnacionalengatik hala izaten jarraitzen dute. Lurralde horiek bortizkeria handia pairatzen jarraitzen dute, adibidez errekurso naturalen esplotazioa eta ondorioz jende lokala beraien herritik kanporatua izaten ari da. Honi emakumeek jasaten duten errepresio bortitza gehitu behar diogu. Gizonekin alderatuta, emakumeak bortxatuak, erailak eta erasotuak dira. Haien lurraldea defendatzeagatik beraien gorputzak arma instrumentu bezala erabiltzen dituzte zapaltzeko. Gorputza lurralde gisa defendatzeari utzi gabe, lurra defendatzea da, emakume hauek duten borroka. Feminismo komunitarioaren pentsamenduarekin bat eginez, gorputza eta lurraren harremanaren dimentsioa onartzen dute. Beraien buruak defendatzen dituzte, beraien lurraldea izango balitz bezala. Hau azertu ondoren, Lumaltik Herriak erakundeak Euskal Herrian burutzen dituen proiektuen bitartez, ikuspegi honek gure gizartean zer nolako inpaktua daukan ere aztertzea edukiko du helburutzat lan honek.

Beraz, irakurleak lan honetan aurkituko duena, egun bizi dugun sistema ekonomiko-kulturalaren aurrean alternatiba eta bizitzeko modu anitzak eskaintzen dituen mugimendu aldarrikatzailea sakonago ezagutzeko aukera izango da. Euskal Herria betidanik gizarte aldarrikatzailea izan da, horri heldurik, ikerketa hau Mesoamerikako *defensoras*-en mugimendua euskal gizartera ekartzeaz eta loturak aztertzeaz ahaleginduko da.

Eskerrak eman nahi diogu Lumaltik Herriak erakundeari lan hau egiteko orduan eman digun erraztasunagatik eta informazioa helarazteko orduan edukitako eskuzabaltasunarengatik. Erakunde hau, Txiapaseko (Mexiko) komunitate zapatisten autonomien prozesua bultzatzeko helburuarekin sortu zen eta komunitate indigenen jarraipena egiteaz gain, eraso neoliberalen aurka haien gorputzak eta komunitateak babesten bizi diren emakumeen garrantziaz ohartu dira. Hain zuzen ere, lan honetan emakume hauei buruz hitz egingo dugu, Mesoamerikako emakume defendatzaileak dira beraiek. 2021eko martxoan Garapena eta Nazioarteko Lankidetzan masterreko praktikaldia erakunde horretan egin genuen eta horri esker emakume hauen errealitateaz ohartzeko aukera zabala eduki dugu. Horrenbestez, emakume hauek osatzen duten mugimendu soziala barnetik ezagutzeko gogoia piztu zitzaigun eta hori dela eta, martxotik irailera bitartean ikerketa hau burutzen aritu gara. Baita ere, eskerrak eman nahi diogu elkarrizketatuei eta eztabaida taldean parte hartu duten norbanakoei kontatu diguten kasu guzti eta deigarriengatik eta baita ere, hau egitean adierazi duten lasaitasun eta erosotasunagatik.

## **2. IKERKETAREN PLANTEAMENDUA**

Herri indigenetako pertsonen migrazioak gero eta gehiago gertatzen ari dela esan beharra dago. Honen arrazoi nagusienetako bat, enpresa transnasionalek beraien lurraldeetan burutzen dituzten proiektuen ondorioz gertatzen da. Proiektu horiek egiteko besteak beste, komunitateko ura kutsatu eta haien etxeetatik kanporatzen dituzte. Honen aurka altxatzen eta manifestatzen badira asko kartzelaratuak izaten dira eta beste batzuk beste herrialde batetara joan behar izan dute erbestera. Errealitate latz eta gogorra da bizitzen dutena.

Praktikaldiari esker, errealitate hau ezagutzeko aukera izan dugu eta esan beharra dago, hauen egoera gertutik ezagutzeko eta dituzten zailtasunak aztertzeko sortu zaigun interesa oso handia izan dela. Lumaltik Herriak erakundeak lan hau egiteko proposamena bota zigun eta gure partetik, momentu batean ere ez zen zalantzarik agertu. Mesoamerikako emakume defendatzaile eta aktibistekin egoteko aukera suertatuari esker, lan hau aurrera eramatea posible izan da. Momentu honetan horietako emakume batzuk Euskal Herrian daude erbesterratuak, beraz hauekin egon eta elkarrizketak egiteko aukera eman da.

Lan honen ikergaia *defensoras* mugimendua aztertzea da eta beraz, mugimenduaren erresistentzia borrokak eta mundua ulertzeko duten pentsamoldea ezagutu eta deskribatu nahi da. Honi jarraiki, lan honek beste zenbait azpi helburu ere baditu:

1. Mugimenduaren oinarri teoriko feminista aztertzea.
2. Mugimenduaren elementuak analizatzea ideiak, mundu-ikuskerak eta pentsamoldea aztertzeko.
3. Mugimenduaren dimentsio ekintzailea deskribatzea eta honen bitartez mugimenduaren motibazioak, errealitatearekiko egiten duten diagnostikoa, erronkak, etab. ikertzea.
4. Mugimendu honen lotura Euskal Herriko teoria feministarekin edota gizartearekin zer-nolakoa den ikustatzea.

Ikergaiaren egiturari dagokionez, hasteko, lanean aditu batzuen teoretatik abiatuta, gaiaren informazioa bilatu dugu, ikerketa eta artikuluak iturri izanik. Ondoren, helburu batzuk finkatu eta ikerketa egiteko zein metodo erabili den azaldu da. Ikerketa enpirikoa burutzeko, iturri akademikoak eta elkarrizketak zein eztabaida taldea erabili da. Bertatik, garrantzizkoa den informazioa hartu eta datuen analisiak egin dira. Datu hauek analizatu ostean, teoria eta helburuekin kontrastatu eta gero, zenbait ondorio atera dira.

Bukatzeko, esan beharra dago, lan honek, gaiari buruz pentsaraztea, eztabaida luze eta hausnarketa sakon bat egitera gonbidatzen duela irakurlea. Errealitatean, herri indigenetako emakumeek jasaten duten egoera bidegabekoei buruz hitz egiten da, enpresa transnazionalak, estraktibismoa, sistema patriarkalak bezalako gaiak mahai gainean jarritz.

### **3. MARKO TEORIKO KONTZEPTUALA**

#### **3.1. EKOFEMINISMOA**

##### **3.1.1. Ekofeminismoa definitzen**

Ekofeminismo bustidurak dion bezala, ekologia eta feminismoa barne hartzen dituen mugimendua da, hain zuzen ere, bi mugimenduen arteko topaketatik sortu zen eta bi mugimenduok ditu oinarrian (Puleo, 2017). Horiek bezala, ekofeminismoak ere parekidetasuna jartzen du ikuspegi globalaren oinarrian, esaterako, ekonomia modelo justuago eta iraunkorragoa aldarrikatuz, naturaren eta giza-bizitzaren arteko oreka baterako bidean (Orgaz, 2018). Izan ere, XXI. mendeko ingurumen arazoek eta egoera sozialek feminismoaren edota ekologismoaren nahitaezko borrokaren arrazoi bihurtu

dira. Alde batetik, emakumeen kolektiboak autokontzientzia eskuratu izanak, mendeetan zehar soldatapeko lan eremuan, kulturen eta politikan izandako mugak gainditzearen proposamenak egitea eragin du. Bestalde, gero eta larriagoa den modelo tekno-ekonomikoaren garapen sostenga ezin eta suntsigarriak bizidun guztion etorkizuna baldintzatzen duenez, alternatibak proposatzearen beharra eragin du (Puleo, 2017).

Gehiago esateko, ekologismoak zein feminismoak pertsona guztien bizi kalitatearen hobekuntza bilatzen dute, hierarkiarik eta dikotomiarik gabea. Gainera, naturaren zein emakumeen menderakuntza eta zapalkuntzekin amaitu nahia ere badute komunean (Orgaz, 2018). Ekofeminismoari buruz, Leff-ek (2004) honela dio:

“reclaman la comprensión de la forma particular de ser mujer y de la perspectiva política que abre una “visión” feminista y de género en la cuestión del poder, la cultura, la organización social, la naturaleza y el desarrollo sustentable, y que va más allá del lugar de la mujer en una estructura social dada y de las reivindicaciones de igualdad con los lugares privilegiados de los hombres en un orden establecido determinado” (Leff, 2004:1).

Hierarkia eta dikotomiekin amaitzeko, autore honen ustetan, (Leff, 2004) ekofemisimoak sexuen arteko ezberdintasunetan jartzen du fokua, esanahi horrek ordena kulturean nola eragin ditzaken ikusi ahal izateko. Identitateak eraikitzeke orduan, subjektuek hartzen dituzten formak zeintzuk diren aztertu eta betetzen dituzten hierarkia sozialak ikusteko, eta baita hortik abiatzen diren menderakuntza harremanek generoaren eraketa sozial eta sinbolikoen eraiketan nola eragiten duten ikusten duen mugimendua dela azpimarratzen du.

Generoaren subjektibotasunaren perspektiba konstruktibistak aintzakotzat hartzen du emakumeek naturaren zaintzarengatik erakusten duten interesa ez dela sexuari loturik dagoen mekanismo automatikoa. Historian kolektibo femeninoak ez du izan plaza publikorako sarbiderik eta zaintza lanetako arduradun nagusia izan da, etxe zein etxekeen zaintzaren arduraduna. Hori dela eta, emakumeek harremanetan eraikitako subjektibotasuna garatu dute, arreta eta afektua izanez. Ezaugarri horiek informazio egoki batekin eta diskurtso hegemonikoenganako ikuspuntu kritiko batekin batzen denean, naturaren eta gainontzeko izaki bizidunen defentsarako interesa pizteko egoera ematen da (Puleo,2017).

Hala ere, aipatu beharra dago emakume eta ekologia kontzeptuak ez direla sinonimoak. Ekofeminista izateak ez du barne hartzen emakumeak naturarekiko eta bizitzarekiko berezko lotura daukanik. Baina Puleok (2017) nabarmentzen duenez, gauza da ingurumenaren aldeko mugimenduetan eta animalien defentsan, emakumeak gehiengoak direla, nahiz eta gizonak ere egon borroka horietan. Puleoren baieztapen horri ez zaio arrazoirik falta, Nazio Batuen ingurumeneko programaren arabera, Latino Amerika eta Karibeko emakumeen %20ak nekazal sektorea ordezkatzeko du. Horrenbestez, datu honek emakumea naturari hertsiki loturik dagoela baieztatzen digu.

Edonola ere eta beste egile batzuek nabarmendu dutenez (Medina, 2012), ekofeminismoak, azken batean, mundu globalizatuan gertatzen ari diren natura eta ingurumen baliabideen gehiegizko esplotazioetan eta biztanleriarengan duen berebiziko eraginean jartzen du fokua. Hortik abiatzen da honen aldarri nagusia, ingurumenaren apurketaren kontrako eraginean eta gizakiok bizitzeko beharrezkotzat ditugun baliabideak kontserbatzeko konpromisoan.

### 3.1.2. Ekofeminismoaren hastapenak

Ekofeminismoaren hastapenak ulertzeko testuinguruari begiratu behar diogu. Nahiz eta ekofeminismoa 70.hamarkadako mugimendu sozialen (feminista, bakezale, ekologista) agerpenetatik garatzen hasi, Medina-Vicent-ek (2012) ekofeminismo hitzaren lehenengo aipamena Françoise d'Eaubonne feminista anarkistaren lanean kokatzen du. Honen ustetan, Françoisek 1974.urtean *Feminismo o la muerte* egindako lanean erabili zuen lehen aldiz ekofeminismo hitza. Lan horretan, Françoisek emakumearen askapenaren erlazioa egiten zuen, gizarte sostengarri bat posible egiteko hazkuntza demografikoa gutxitzeko beharra zegoela ohartu zen eta feminismoak aldarri horretan borrokatu behar zuela azpimarratu zuen.

Francoisen lan hori eta gero, munduan zenbait gertaera gertatzen dira lehen konferentzia ekofeminista egitea ekartzen dutenak. Lehen konferentzia ekofeminista<sup>1</sup> 1979. urtean Pensilvanian *Three Mile Island* zentral nuklearrean gertatutako istripuarengatik burutu zen, gertaera horrek emakume amerikar asko bultzatu zituen zentral nuklearraren aurka manifestatzera. Topaketa horretan feminismoaren, militarizazioaren eta ekologiaren arteko konexioak aztertu ziren (Mies y Shiva, 1997). Geroago, Bhopalen (India, 1084) *Union Carbide* konpainian pestiziden fabrika batetako axolagaberiagatik gertatutako hondamendi ekologikoak edota Txernobileko (Ukrania, 1986) hondamendi nuklearrak ekofeminismo baten beharra bultzatu zuten, perspektiba feminista batetik arazo horiei aurre egiteko (Medina-Vicent, 2012).

Ekofeminismoa garatzen doan heinean, proposamen desberdinak eta autore desberdinak agertzen hasten dira. Horrek ekofeminismoa bi pentsakera adar nagusietan bereiztea ekarriko du eta hauek emakumeen identitatea eta gizakien eta naturaren arteko erlazioa ulertzeko moduaren arabera bereiztuko dira. Puleok (2008) *Libertad, igualdad, sostenibilidad. Por un ecofeminismo ilustrado* eginiko lanean pentsakera adar bat ekofeminismo klasiko esentzialistak edo espiritualak izenez definitzen du (ikuspegi naturalista). Pentsakera modu horretan, emakumeak biologikoki edota ontologikoki naturarekin hurbilago daudela uste dute. Bigarren pentsakera adar nagusiak ikuspegi konstruktibista batean du oinarria eta hauek generoaren identitatearen eraikuntzaren fokua, baldintza historiko eta ekonomikoetan jartzen dute.

---

<sup>1</sup> “Mujeres y vida en la Tierra: conferencia sobre ecofeminismo en los ochenta”, 1980. eko martxoan, Amherst. (Rubio, 2013)

### 3.1.3. Ekofeminismoaren korranteak

#### a) Ekofeminismo klasiko esentzialista edo espiritualista

Ekofeminismo klasikoaren autore nagusia Mary Daly amerikarra da eta *Gyn/Ecology: The Metaethics of Radical Feminism* liburua argitaratu zuen. Autore honek (Daly, 1978), ekofeminismoaren hasierara eramango digu, hau emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak erreklamatzearaz oinarritzen zen unera. Desberdintasun horiek emakumea naturala dena eta pazifismora hurbiltzen dute, emakumearen naturalizazioa egiten dute eta bitartean gizona gerrarekin, suntsiketarekin eta biolentziarekin identifikatzen da. Desberdintasun horiek biologikoan oinarrituko dira baina baita erlijiosoan ere, erlijio guztiak patriarkatuaren kultutik baitatoz.

Proposamen teoriko klasiko honek, emakumeak gizartean dituen gaitasunak eta ezaugarriak bereizgarri naturalen moduan identifikatuko luke, emakumeari atxiki doazen bereizgarriak haren izaera sexualarengatik. Ikusi dezakegun moduan, irakurketa honek arriskuan jarri dezake feminismoaren emantzipazioaren proiektua, ez duelako onartzen genero identitateak eraikuntza sozialak direla (Hernando,2000) eta horiek bezala onartuta, deseraiki egin daitezkeela desberdintasunekin bukatzeko.

Premisa horiei jarraituz, 70. hamarkadaren bukaeran hegoaldeko herrialdeetan ekofeminismo esentzialista edo espiritualista sortzen hasten da, Vandana Shiva fisika hindua adierazle izanik. Autore honek *Abrazar la vida: mujer, ecología y desarrollo* obran gorputz femeninoa ama lurraren gorputz naturalarekin alderatuko du. Proposamen teoriko honen arabera, naturak egunero sufritzen duen biolazio armatua mundu osoko emakumeek sufritzen dutenarekin konparatu daiteke. Horregatik erreklamatzeko da espiritualitatearen bilaketa, naturaren garrantziaren bilaketa bezala ulertuz, “la relevancia ecológica que se concede a la “espiritualidad” radica en el redescubrimiento del carácter sagrado de la vida, del cual se desprende que su conservación sólo será posible si las personas vuelven a considerar sagradas todas las formas de vida y respetarlas como tales” (Shiva y Mies, 1997: 32).

Shiva eta Miesek ekofeminismoa filosofia eta praktika aktibista bezala aurkezten dute. Praktika honek, modelo ekonomikoa eta mendebaldeko kultura emakumeen, atzerriko herrien, lurren eta naturaren kolonizazioari esker sortu eta mantentzen dela defendatzen du. Emakumeen subordinazioa eta naturaren esplotazioa txanpon bereko bi aurpegi bezala ikusten dute eta honako logika berdinei erantzuten diola azpimarratzen dute: natura alde batera utziz bizi ahal izatearen ilusioa, botere patriarkalen praktikak eta bitzita menderatzea akumulazioaren exigentzia bilatuz.

Emakumeak Estatu Nazional europarraren esplotazioaren erdigunean daude, eta hor menderatuak dauden bestelako kolektiboak ere daude, hala nola, pobreak, homosexualak, etab. Shiva eta Miesen (1997) ustetan, menderatze hori ezin du Estatu Nazioak sostengatu biolentzia zuzenaren monopolio estatalik eta polizia edota

militarren bortxazko metodorik gabe. Beraz, Estatuak herritarren biolentzia legitimoa pertsonifikatzea eta gauzatzea behar baitu.

Hartara, Estatu Modernoaren genesian emakumea talde sozial menderatua bezala definitzea beharrezkoa zen, horretan zetzan sistema kapitalistaren sostengua eta hedapena. Eta testuinguru honetan sortzen da emakume burges idealaren papera zeinak dominazio sistema hori legitimatuko duen: “dicha idea de la feminidad era el complemento que empezó a conquistar el mundo en aras de la acumulación capital” (Shiva y Mies, 1997: 201).

Horrekin batera., Shiva eta Mies-ek (1997:91) argitaratutako *Ecofeminismo* liburuan, kolokan jartzen dute enpresa multinazionalen eta mendebaldeko estatu nazioek duten diskurtsoa. Diskurtso horrek planetaren errekurtsio naturalak mugagabeak direla eta horiek abantaila ateratzen dakitenentzako dela esaten du.. Shivak eta Mies-ek muga horren mitoa deseraikitzen dute eta beraien diskurtsoa banaketa kolonialen bitartez bakarrik mantenduko dela azpimarratzen dute: zentro eta periferien artean, gizon eta emakumeen artean, hiri eremu eta baserri eremuen artean, iparraldeko gizarte industrial modernoaren eta hegoaldeko gizarte atzeratu, azpigaratuen artean.

Errekurtsio naturalen mitoa deseraikitzeaz gain, Shivak eta Miesek (1997) mendebaldeko garapen modeloa ere kolokan jartzen dute eta mendebaldeak hegoaldera esportatzen duen “gaizki garatutako” modeloak leku horietako pobrezia areagotzea eragiten duela azpimarratzen dute. “Hasta ahora, la pobreza se ha percibido culturalmente en términos de unos estilos de vida que no corresponden a las categorías de la sociedad industrializada occidental” (Mies y Shiva,1997: 118), horregatik ezinbestekoa da ikuspegi mugatu hori ezabatzea pobrezia ulertzeko bizitzaren eta osasunaren segurtasunaren aurkako mehatxu moduan.

Honako baieztapenak baloreak aldatzeko beharra erakusten digu zeinetan zehazten den gizarte bat pobrea edo zoriontsua den ala ez. Ezin da aldarrikatu europar modeloa hoberena dela, beste hainbat bizitza modelo existitzen direlako Europakoa bezain onartuak daudenak, eta ekofeminismoaren eta ekologismoaren helburua hauen babesagatik borrokatzea da. Gainera, ikuspegi mugatu hori gainditzean, gizarte “garatuenetan” dagoen pobrezia ikustarazten da, adibidez mendebaldeko zenbait herrialdeetan pobrezian bizi den haur eta emakumeen populazioa. Hortaz, pobrezia bestelako aurpegiak izan ahal ditzake, kalitatezko osasun eta hezkuntzako sarbiderik ez daukan familia bat adibidez. Honi garapen modelo txarrean jatorria daukan hegoaldeko herrialdeetako krisi ekonomikoa gehitu behar zaio. “Gaizki garatutako” modelo hori, Shivak eta Miesek (1997:121) izendatzen duten moduan, ingurumena pobretzeaz arduratzen da eta hau, haurren bizirauteko mehatxua ari dela izaten azpimarratzen dute. Autore hauen arabera, kontua ez da pobreak ez diren gizarteak pobretzat bakarrik seinalatzen ditugula, baizik eta, aurrerabidearen estandartean benetako pobrezia ari da garatzen poztasunaren, bizitzaren eta errekurtsio naturalen suntsipenaren ondorio moduan.

Hau esanda, ikuspegi naturalistaren proposamen teorikoak hurrengo bigarren adar zabalarengatik, hau da, konstruktibistengatik, kritikatu izango da.

### **b) Ekofeminismo konstruktibista**

Filosofia feminista eraldatze prozesu konstante batean dago, hortaz, ekofeminismoa ere, inguruko egoerei eta emakumearen emantzipaziorako kaltegarriak izan daitezkeen hasierako premisen gainditze continuum batean aurkitzen da. Azken hamarkadetan handitzen ari diren ingurugiro arazoak, erantzunak hartzeko beharra erdigunean jartzen ari da “porque estamos asistiendo al comienzo del fin de la Naturaleza y sólo la ignorancia o la adopción de una actitud tecno-entusiasta ciega puede hoy en día hacer que miremos hacia otro lado cuando los signos de peligro son tan claros” azpimarratzen du Alicia Puleok (Puleo, 2002: 36).

Aurreko atalean ekofeminismoaren ikuspegi naturalistari buruz adierazi diren premisak hobetzeko, alderdi konstruktibistak edota sozialak bere garapena izan du. Nahiz eta, ikuspegi biak emakumearen dominazio patriarkalaren eta naturaren artean erlazioa existitzen denaren baieztapenetik abiatu.

Korrante konstruktibistak, genero identitatearen eraikuntza sozialaren prozesu historikoa kontuan hartuko dute, ekofeminismo klasiko edo esentzialistaren aldera. Emakumeen edota gizonen ezaugarriak, jatorrizko moduarekin lotzeak, modu batean edo bestean lehenengoak pairatzen dituen dominazio egoerak legitimatzea suposatzen du. Jatorriz honelakoak izanik, egoera horiek eraldatu ezin direla inplikatzeko. Nahiz eta, “identitateei lotutako bertuteak, estatistikoki generoa eduki (Puleo, 2008: 53), honek ez du esan nahi bertute hauek berezkoak direnik gorputz femeninoari edo maskulinoari, baizik eta, hauei gehituak dira indibiduo bakoitzaren formazio prozesuan eta horregatik sozialki ezaugarri batzuk besteak baino ikusgarriagoak dira.


Hori horrela izanik, ekofeminismo konstruktibistak, arrazionaltasun maskulino zapaltzailea Antzinako Greziako mendebaldeko filosofiaren hastapenetik historikoki sortzen joan dela aldarrikatuko du. Ondorioz, natura eta kultura, gizon eta emakume, arrazionaltasuna eta afektua, espiritua eta materiaren arteko dualismo hori gainditzeko beharra azpimarratuko dute (Puleo, 2002). Adibidez, ekofeminismoaren adar honetako adierazletako bat, Bina Agarwal da jatorriz hindua, Gesta Menon eta Mira Burra-rekin batera emakumeak naturarekin daukan erlazioari dagokionez, azalpen historiko baten beharra aldarrikatzen dute, honen basea emakumeak etxean eta ingurugiroarekin daukan harremanetatik eraikitzen duen genero roletan dagoelarik. Adibidez, Indiako emakumea ortuak zaintzeaz eta ura zein egurra batzeaz arduratzen dela diote, beraz bere kontzientzia ekologikoaren iturria hau izango liratekeela azpimarratzen dute (Agarwal, 1999). Hori dela eta, korrante honen barruan emakumeak naturarekin daukan konexioa edota sentzibilitatea onartzen da baina ez esentzialistek ulertzen zuten modu ontologikoaren bidean, baizik eta, egoera desberdinek eragiten duten prozesu historiko baten emaitza bezala ulertzen dute hauek. Hau da, historikoki emakumea etxeko eta



familiaren zaintzaren eremuan geratu da zokoratuta eta ondorioz, hurbilketa handiagoa eduki du zaintzaren etikarenganako baina ez jaiotzatiko ezaugarriengatik baizik eta bere errealitate historikoaren ondorioagatik. Horregatik, ekofeminismoa zabalagoa da herrialde “azpigaratuetan”, herrialde hauetan benetako lotura existitzen delako naturaren eta emakumeen artean, landa eremuan bizi direnen tasa altua denez, ekosistemek, basoak eta ingurugiroak pairatzen dituen narriadurak lehen pertsonan bizitzen baitituzte.

Beraz, Alicia Puleok azpimarratzen duenez, historikoki emakumeek gizartean eta produkzio/berprodukzio egituran eta harremanetan izandako kokapena da inguruarekiko etikaz jabetzeko giltza. Hau da, ikuskera konstruktibista, “emakumeek ingurugiroarekin duten interakzioa da fabore egiten diona honen kontzientzia ekologikoari eta ez, honen sexu ezaugarri afektibo edota kognitiboak” (Puleo, 2002:38).

### 1.taula: Ekofeminismoa



Iturria: norberak egina.

### **3.2. EMAKUME INDIGENEN EKARPENA: FEMINISMO KOMUNITARIOA**

Feminismo komunitarioa akziozko pentsamendu bat da eta orain dela 26 urte sortu zen Bolivian prozesu bati esker. Horren ahots garrantzitsuenetako bat dugu Julieta Paredes izeneko aktibista bolibiarra, feminista, lesbiana eta jatorriz aimara Hego Amerikako komunitate indigenakoa da. Paredesek honela azaltzen digu zeri esaten dioten feminismo komunitarioa:

“usamos indistintamente, feminismo comunitario como también Feminismo comunitario, es porque no estamos adjetivando ni apellidando al feminismo, la comunidad es la propuesta y la comunidad somos también nosotras. A la vez es un instrumento para recuperar nuestras conceptualizaciones de las garras del colonialismo académico, de la superficialidad y el oportunismo de las modas y fundamentalmente para convocar a la construcción de un movimiento con base en la confianza política, en la producción y creación teórica y la ética en nuestras acciones. O sea que no somos feministas comunitarias porque vivimos en una comunidad rural, puede ser que vivamos o no, pero eso no es lo que nos define, lo que nos define es la propuesta de comunidad que tenemos y nuestra propuesta de sociedad que es la Comunidad de comunidades (Zaniboni, 2016:118).

Beste modu batera esan da, emakume horiek sustatu duten feminismoa ez da teorietatik abiatuta sortu, sumindutako gorputzek egunerokotasunean jasandako biolentzietatik eta bazterketatik baizik. Eta feminismoa emakume indigenen autonomia aldarrikatzeko modu bat bihurtu da arbasoen jatorrizko patriarkatuaren aurrean, hau da, beren komunitateetan azpiratzen dituen zapalkuntza-sistemaren aurrean (Cabnal, 2016).

Korronte hau, sare desberdinen bitartez antolatzen den mugimendua da eta gaur egun presente dago Bolivian, Mexikon, Txilen eta Suedian. Hortaz, mugimendu organiko bezala azpimarratzen du Paredesek, hausnarketa eta pentsaraztea eragiten duena (Zaniboni, 2016).

#### **3.2.1. Abya Yalako feminismo komunitarioaren nondik norakoak**

*Abya Yala* terminoa amerikar kontinenteari erreferentzia egiteko erabiltzen da. Termino horrek *Tierra Madura*, *Tierra Viva* edota *Tierra en Florecimiento* esan nahi du. Kontzeptu hau, Kolonbia eta Panamako Kuna herri indigenakoek erabili zuten lehenengo aldiz, beraien kontinenteari erreferentzia egiteko. Identitate sinbolikoa dauka, espainiarren kolonizazioaren aurkako desadostasuna eta herri indigenei errespetua adierazteko erabiltzen den termino bat da (Carrera Maldonado eta Ruiz Romero, 2016). Feminismo komunitarioa lurralde horretan sortu eta loratu da, horregatik termino horren azalpena.

Esan bezala, korronte hau Bolivian emandako prozesu bati esker hasi zen loratzen. Feminismo komunitarioaren prozesu deskolonizatzaile hori, mendebaldeko feminismoen hizkuntza hegemonikoaren erabilera kuestionatzen hastetik abiatu zen eta

kuestionatze horretatik, beraien praktika politikoak definitzeko hitzak bilatzen hasi ziren (Falquet, 2014; Paredes, 2015: 103). Cruz Hernandezen ustetan feminismo komunitarioak ibilbidea izan arren, ez du ahotsik eman. Izan ere, feminista komunitarioen aportazio teoriko-politikoek, feminismo hegemonikoaren ahultasunak eta kontraesanak agerian jartzen ditu (Cruz Hernández, 2020). Ildo horretatik Martinez-ek (2019) argudiatzen du mugimendu eta pentsakera hegemonikoaren harremanak ez diotela lekurik utzi feminismo komunitarioari, honen eskaerak eta proposamen politikoak entzuteko.

Horrenbestez, ikuspegi komunitario batetik feminismoa berriro kontzeptualizatzen hasteak, hizkuntza hegemonikotik aldentzea eta adierazpen propioak erabiltzea suposatu du. Beraz, organikoa den mugimenduaren aurrean gaude. Bere burua auto izendatzen duena eta mundua ulertzeko duen ikuskeratik kokatzen dena (Paredes, 2015:111). Zentzu honetan, komunitatea emakumeek, gizonak, lurrak, lurraldeak, animaliak, bizitzak, begetalak eta mineralak osatzen dute (Espinosa et al., 2014:426). *La Pachamama* edo *Madre Tierra*, Abya Yalan esaten duten moduan, komunitatea da eta komunitate horren parte diren elementu guztiekin elkarrekiko erlazioan dago, beraz ez da propietate bezala ikusten, kapitalismo patriarkatuak interpretatzen eta ulertzen duen modura. *La Pachamama* lurra baino gehiago da, jendea bertan sartuta dago eta berau da komunitateari bizitza bermatzen diona. Aipatutako elementuez aparte, urak ere berebiziko garrantzia dauka Abya Yalako komunitatean. Esaterako Aura Lolita Chavez<sup>2</sup> Guatemalako k'iche herri indigenako defendatzaile erreferenteak honela definitzen du:

“para nosotros el agua es un ser que trae la vida y que tiene derechos. El agua tiene una expresión propia, tiene derechos por sí misma, nosotras no pedimos tener derecho al agua, pedimos que se reconozcan los derechos que el agua tiene. Ante algo tan grande, ante la vida que significan las montañas y el agua, solo podemos dar nuestra vida por ellos. Por eso las empresas no entienden este compromiso tan grande que tenemos en nuestra lucha, no entienden que lleguemos a dar la vida por defenderlas” (Sendón, 2016).

Komunitate kontzeptuak zentzu partikular bat dauka Paredesek (2014) feminismo komunitarioaren inguruan egiten duen proposamenean. Boliviarrarentzako, komunitateari buruz hitz egiteak, mendebaldeak gizon, emakume eta naturaren interakzioaren inguruan pentsarazi duen modua eraldatzea suposatzen du. Orduan, komunitatea organismo modura ulertzen da eta horren parte diren kide bakoitza bakarra, beharrezkoa, autonomoa, antipatriarkala eta antihierarkikoa da. Komunitateak denbora eta espazio konkretu zein sinbolikoa behar duen gorputz bakar bezala jokatzeko, munduan egotearen arrazoi hutsagatik.

Gehiago esateko, Paredesek (2014) proposatzen duen komunitatearen kontzeptuak, produkzio bideen gaineko propietate pribatua ezabatzea bilatzen du eta

---

<sup>2</sup> Consejo de Pueblos Kiché-ko kidea

komunitateko kide bakoitzaren gaitasunen, nahien eta abilezien arabera modu berdintsuan lan banaketa eraldatu nahi du, etxeko lanak lan partikular modura onartuz. Zentzu horretan, feminismo komunitarioak ez du ulertzen komunitatea banakotasunen batuketa modura, baizik eta zerbait osoa, organikoa eta dinamikoa dena eta komunitatearen onurarako bakoitzaren gaitasunak eta talentuak onartzen dituen.

Are gehiago, komunitateko beharrak eta lanak ez dira konpontzen kideen arteko kompetentzietatik, hauek konpartitzen duten espazioak indartzen eta beraien arteko afektutik baizik, hau da, balore komunitarioetako bat bestearenganako afektua edukitzea da. Honek esan nahi du, elkarrekikotasuna erlazio etiko moduan agertzen dela eta bertan, bestea gainontzeko guztien berdin ikusteko sentimendua instalatzen da. Giza baloreetan hezteko Paredesek proposatzen duen ikuspegia da eta komunitatean norbanakoaren gogobetetasuna bermatzea bilatzen duen bulkada naturala dela dio: “el Vivir Bien del hermano o la hermana de la comunidad es una responsabilidad y un deseo de todos y todas” (Espinosa et al., 2014:427).

Bestalde, gizon eta emakumei txikitatik atxikitzen zaien rola, alde garrantzitsua daukate feminismo komunitarioak egiten duen apustuan. Gizon, emakume eta naturari atxikitzen zaien rol horiek, patriarkatuaren aurka borrokatzeko estrategian zuzenean eragiten dute. Feminismo komunitarioak honen aurrean elkarrekikotasuna, berdintasuna, duintasuna eta autonomia bezalako baloreak berrartzeko apustua egiten du. Balore horiek korrante honek planteatzen duen mundu ikuskeratik interpretatuak dira, zeinetan aurretik esan den moduan gorputza ulertzeko ideiak osagarritasuna hartzen du oinarri gisa, eta ikuskera horretan gizon eta emakumearen arteko erlazioa nahitaezko bi zati moduan ikusten da, zeharo koordinatuak daudenak, eta bata bestearengandik autonomia dutenak baina erlazio hierarkiko batean funtsa izan gabe (Guzman eta Triana, 2019).

Hori horrela izanik, emakumeen parte hartzea ukatzen bada komunitateak gorputzaren parte bat galtzen du. Emakumeen presentzia, produkzioa eta parte hartzea ukatzeak, komunitatean honako hau suposatzen du gorputzaren ideari dagokionez: gorputz komunitario hori osorik ez egotea, gorputzeko atal bat faltako balitzaioke moduan (Paredes, 2012). Emakumeen gorputza lurralde gisa hartuta komunitatea eraikitzeko orduan, beraien presentzia agerikoa izan behar da sormenean, jakindurian eta memorian. Hortik ematen hasten da borroka antisistemikoa, besteenganako erlazio horizontalak onartzen dira eta berdin dio indigena, beltza edota lesbiana izateak (Paredes, 2015:112). Ideia hauek barne hartuz esan behar da, emakumeek jasaten duten zapalkuntza ez dela urruntzen naturak pairatzen duen zapalkuntzagatiko borrokara eta hain zuzen ere, ideia honetan bat egiten dute ekofeminismoak eta feminismo komunitarioak.

Paredesekin (2015) bat eginik, gorputza naturaren parte dela eta horregatik gainontzeko gorputzekin batera *la Pachamama* osatzen duela dio. Honen aurka, sistema patriarkala, modelo kapitalistarekin eta pentsamendu modernoarekin batera, norbanakoa bereizteaz eta gorputzen artean mugak ezartzeaz arduratu dira. Feminismo

komunitarioaren lana hor azaltzen da, gorputz-komunitarioa berriz bere lekuan jartzeaz arduratzen da, gizon, emakume eta naturaren artean loturak sortuz eta sistema patriarkalak eragiten dituen milaka zapalkuntzen eraldaketarako akzio politikoaren leku zentrala okupatzea baimentzen du. Korronte honek, sistema patriarkala ez bakarrik, baita modernitatea eta sistema kapitala arbuiatzen ditu, natura ikusteko daukaten modua dela eta.


Mendebaldeko pentsamenduak modernitatetik sorrarazi duen bereizketaren ideia, natura dominazio eskema batetik interpretatzea eta erakustez zentratu da. Posizio honek logika bitarrak indarra hartzea eragin du hierarkizatutako perspektibatik eta zapaltzailearen eta zapalduan arteko aurkakotasunetik. Honek ondorio modura bietako bat pribilegiatzea ekartzen du: gorputz-arima, gizon-emakume, kultura-natura. Paredesen perspektiba dikotomia hori gainditzera saiatzen da. Aimara<sup>3</sup> komunitateak egunerokotasunean korronte hau praktikara eramaten duen adibide bat da, mundua ikusteko eta ulertzeko modua gizon eta emakumeen arteko elkarrekikotasunean oinarritzen du. Lehen aipatu dugun moduan, zati bi horien batura bakarrik ulertu daiteke *Pachamama* konprenitzen bada, honek konfigurazio ontologiko berri batera eramaten digu. Honela, gizonak eta emakumeak ez dira eraikitzen ontologikoki haien desberdintasunen bitartez, haien baturaren bitartez baizik eta batura hau, *Pachamama*rekin interrelazioan dago. Modu honetan bakarrik desegiten da erlazio bitarrarekin.

Korronte honekin bukatzeko, patriarkatuak gauzatzen dituen zapalkuntza bikoitzari (naturarena eta emakumeena) erantzuna emateko eraikitzen dela azpimarratuko dugu eta Lorena Cabnal-en (2010:11) ustetan ideia honetan laburbildu daiteke: “una recreación y creación de pensamiento político ideológico feminista y cosmogónico, que ha surgido para reinterpretar las realidades de la vida histórica y cotidiana de las mujeres indígenas, dentro del mundo indígena”. Bere baitan, berdintasunean oinarritutako erlazio berriak indartu eta ezarri nahi ditu komunitate barruan, kapitalismotik eta heteropatriarkatutik gauzatzen diren biolentzietatik kanpo kokatuz. Lorena Cabnal-ek (2010), komunitatea sendotuz soilik kanpoko erronkari aurre egin ahal zaiola azpimarratzen du eta komunitatea indartzeko, emakumeak zein gizonak era berean sendotuta egon behar direla uste du.

---

<sup>3</sup> Aimarak Hego Amerikako komunitate indígena da. Gaur egun, aimarak nagusiki Bolivian, Perun eta Txilen bizi dira. (Euskaltzaindia, 2018)

## 2.taula: Feminismo komunitarioa



Iturria: norberak egina.

### 3.3. EKOFEMINISMO INDIGENAK: GORPUTZ-LURRALDE-LUR DEFENTSA KONTZEPTUAREN IKUSPEGIA

#### 3.3.1. Kontzeptuaren aurrekariak

Atalean landuko den *gorputz-lurralde*<sup>4</sup> kontzeptua ez da feminismo zuri akademikotik idatzia izan, herri indigenetako erresistentzien egunerokotasunetik baizik.

<sup>4</sup> Cuerpo-territorio: gorputza gure oinarriko lurraldea dugu eta, beraz, hura babestu eta zaintzeko beharra dugu. Bakoitzak bere lurralde propioa du, beraz. Ez da gorpu soil bat, hainbat elementuz osatutako osotasun bat da: gorputza, burua, pentsaerak, ezagutzak, espiritualtasuna, sentipenak, erabakiak, jarrerak,

Lan honetan, protagonistatzat hartu ditugun Mesoamerikako emakumeak, feminismoa praxitik eginez eta bertatik bizi azalarritzen dute gorputz-lurralde kontzeptua. Cruz Hernándezek (2016) gorputz-lurraldearen adierazpena Latinoamerika eta Karibeko epistemologiatik datorrela azpimarratzen du, komunitatean bizi diren herri indigenetako emakumeek sortua izan dela eta hauek, beraien bizitza estilo moduan gorputz-lurraldea komunitatearen erdigunean jartzen dutela azaltzen du. Kontzeptu hau, nahiko ohikoa izanen da aldarrikapen politikoetan, hona hemen adibide bezala Boliviako Mujeres Creando kolektiboko graffiti bateko esaldia: “¡Ni la tierra ni las mujeres somos territorio de conquista!”

Gorputz-lurraldearen esanahia, feminista indigena batzuen ahotik izendatua izan zen lehen aldiz eta egun, haien lurraldea defendatzen duten Amazonako emakume, indigena eta Karibe zein Latinoamerikako beste emakume batzuegatik berrartua izan da (Cruz Hernández, 2016).

Kontzeptuaren aurrekariak aurkitzeko XV. mendera begiratu behar da. Abya Yalan gertatutako inbasio kolonialak zauriak eta arrailak ireki zituen. Indigenen lur, lurralde, errekurtso, jakintza, kultura eta baita beraien gorputzetan emandako jabetza, bereziki emakumeena, aipatzen da domestikazio horren adierazle gisa,

“ha sido constitutivo del lenguaje de las guerras tribales o modernas, que el cuerpo de la mujer se anexe como parte del país conquistado. La sexualidad vertida sobre el mismo expresa el acto domesticador, apropiador, cuando insemina el territorio-cuerpo de la mujer” (Segato, 2013:35).

Lorena Cabnal-ek (2010) ere ideia antzekoa partekatzen du, haren ustez penetrazio koloniala ematen da. Hasierako inbasio modura ulertzen dena, gero lurraldearen dominazioa bihurtuko dela uste du eta dominazio horretan emakumeen gorputza erabiltzen dela azpimarratzen du. Gainera, penetrazio kolonial horrek gaur egun emakume indigenek bizi duten diskriminazio eta desabantaila egoera multipletan deribatuko duela adierazten du.

Dena den, emakume indigenek pairatzen duten biolentziak eta zapalkuntzak, Curiel-en (2007) ustetan ez datoz bakarrik kanpotik, beraien komunitateetan ere sortzen dira. Hori horrela izanik, feminismo indigenak gizarte latino amerikarrek erlazio patriarkal, sexista eta arrazistak kuestionatu ditu eta aldi berean emakumea zapalduta mantentzen duten komunitate eta herrietako beraien erabilera eta tradizioak zalantzan jarri dituzte. Errealitatean, komunitate indigenetan, gizon eta emakumeen berdintasuna ez da parekoa eta kapitalismo zein kolonialismoaren ondorioz jasaten duten biolentzia komunitate barrura zeharkatzen da, emakumea kanpo biolentzia zein barne biolentziaren inaktuak pairatzen dituen izanik.

---

indarkeria eza... Gorputzaren defentsa egin beharreko borroka espazioa dugu. Lumaltik Herriak (2020:126).

Maria Eugenia Choque eta Silvia Rivera Cusicanqui (2010) emakume indigenak haien komunitatean gaur egun, erlazio patriarkal eta matxistak ematen direla onartzen dute, erlazio horiek kolonizazioaren eskutik heldu zirela uste dute eta ez lehenago. Honetaz aparte, María Lugones-ek (2008) *Colonialidad y género* artikuluan aipatu zuen Paula Gunn Allen eta Oyéronké Oyewúmi emakume indigenek ere iritzi berdina konpartitzen dutela. Esan beharra dago, aipatu ditugun emakume indigenen iritzia dela, gaur egun, ez baitago iturri fidagarririk hau demostratzeko.

Bestalde, Cabnal (2010) eta Paredesen (2011) ustetan, emakume indigenek jasaten duten biolentzia eta zapalkuntzak kanpotik bakarrik datozela (kolonizazioaren eskutik) pentsatzeak proposamen teoriko esentzialistetan erortzea liratekeela uste dute. Horien aburuz, kolonizazioaren aurretik komunitate indigenetan erlazioak patriarkalak ziren ere.

### **3.3.2. Zapalkuntza bikoitza adierazteko kontzeptua: Gorputz-lurralde-lurra**

Silvia Federicik esaten duenez, gizarte kapitalistan gizonentzat fabrika dena, emakumeentzat gorputza da, alegia “el principal terreno de su explotación y resistencia”. Estatua jabetu da gorputz femeninoaz eta gizonak erreproduziorako eta lan akumulaziorako bitartekari moduan jarduteko behartuak izan dira (Federici, 2014:29).

Zenbait autore (Cacho Niño, 2015; Federici, 2014; Fulchiron, 2016; Hernández Castillo, 2010; Mies, 1986) bat datoz hurrengo ideia honekin: beharrezkoa da emakumeak menperatzea beraien gorputzak eta sexualitatea kontrolatzeko, sistema kapitalista, estraktibista eta belikoa erreproduzitu ahal izateko. Mekanismo horrek propietate pribatuaren kontzeptua sortzen duela eta kontzeptu horretatik mendebaldeko indibiduo modernoaren askatasuna eraikitzen dela azpimarratzen dute: “las fronteras del cuerpo de las mujeres, al ser identificadas con su sexualidad, con su útero, hospedan el germen de la libertad de las sociedades modernas” (Marchese, 2019:27).

Hartara, gorputza garapen ekonomikoaren motorra da, sistema politiko-ekonomiko kapitalistaren oinarrian dagoen lanaren motorra hain zuzen ere. Marchese-k (2019) gorputza kaiola bat bezala definitzen du, bertan emozioak, sentimenduak, plazerrak, minaren memoria eta autozaintza pertsonala zein kolektiboa preso geratzen dela uste baitu. Cruz Hernándezek (2016) ideia antzekoa konpartitzen du. Gorputza lurralde gisa bezala ikusten du, munduan espazio bat okupatzen duena eta bertan, emozio, sentsazio eta erreakzio fisiko guztiak bizitzen dituela uste du, gorputzetik erresistentzia bilatzen ahaleginduko delarik. Marchesek motorra deritzona, aldiz, Cruz Hernándezek (2020) gorputza ibilgailu bezala definituko du, lurraldearekin eta gainontzeko guztiarekin erlazioan dagoena eta horrenbestez, elementu horiekin bitartekari funtzioa betetzen duela adierazten du.

Feminismo komunitario indigenaren proiektu politikotik beraien lurraldeetan pairatzen duten desjabetze *continuumen* inguruan pentsarazi eta gorputz-lurralde-lur kontzeptua sortzeko estrategiak abiarazi dituzte. Kontzeptu hau, Guatemala eta



Boliviako emakume indigenek sortutako argumentua da eta beraien ekarpena gorputzak lurraldeak direla eta lurraldeak gorputz sozialak direla eta biak apurtu ezin litekeen lotura daukatela ulertzera bideratuta dago (Cruz Hernández, 2016, 2020).

Arestiko atalean azaldu den ekofeminismo konstruktibistaren pentsaeran, genero identitatea eraikuntza sozialen bitartez eraikia izan dela aipatu da. Oyèrónke Oyêwùmí nigeriar soziologoak pentsaera honekin bat egingo du eta *La invención de las mujeres. Una perspectiva africana sobre los discursos occidentales de género* obran, bere proposamen teorikoa mahai gaineratuko du. Generoa eta baita gorputzak fenomeno historiko, kultural eta sozialak direla aipatzen du. Autore hau, jatorriz Nigeriako yorùbá herrikoa da eta bertan mendebaldeko genero kategoria ezarri zela defenditzen du. Kategoria hori ezartzeak, emakumeak, juduak, afrikarrak, pobreak etab. desberdin izeneko etiketarekin izendatuak izatea ekarri zuela uste du, “bestea” etiketaz kontsideratuak eta horrekin batera baita beraien gorputzak ere.

Kolonialismoaren ondorioz, mendebaldeak bere eraikuntza sozialak hegoaldeko gizarteetan ezartzeak, autore desberdinen artean dekolonialitateari buruzko eztabaida sortzea ekarri du. Kolonialismoaren eraginez lurraldeek pairatzen duten inbasioak gorputzak zeharkatzen dituztela uste dute autore askok eta horrenbestez hurrengo atalean azalduko den bezala, gorputza ulertzeko paradigma berri bati lekua emango zaio.

### **3.3.3. Gorputz-lurralde-lurra deskolonizatzearen beharra**

Gorputz eta lurraldearen arteko loturari buruz birpentsarazi duen adarra, pentsakera dekoloniala izan da. Pentsamendu honetatik, lehendabiziko elementu garrantzitsu modura generoa hartu dute, baina ez da bakarria izan, kolonia zer den ulertzeko arraza kontzeptua ere hartu eta eztabaidaren zentroan jarri baitu Mendoza-k (2014).

Autore honekin batera, feminista komunitaria indigenak ere, pentsamendu dekolonialaren bidean hasi dira erabiltzen gorputz-lurralde kontzeptua, inbasio kolonialak emakumeen gorputza medio bezala erabiliz, haien lurraldeetan eragin dituzten lur, errekurtsio eta jakintzen desjabetzeen inguruan hitz egiteko mahai gaineratu dute termino hori. Halabaina, Paredes (2011) eta Cabnal-ek (2010) pentsakera esentzialistan bakarrik geratu nahi ez dutenez, emakumeen gorputz-lurralde defentsa ulertarazteko, patriarkatuaren prozesu historikoa konprenitzeko saiakera egitearen aldekoak dira. Gorputz-lurralde defentsa honen atzean eskari politiko bat dago emakume indigenen hausnarketatik hedatuz joango dena eta hauen asmoa beraien ikuspegia helaraztea izango da (Cruz Hernández, 2020).

Emakume indigenen hausnarketa hauetan bi autoreekin topo egingo dugu, alde batetik Yuderkis Espinosa filosofa dominikarrarekin eta bestetik, Dorotea Gómez Grijalva guatemaldar jatorriz maya k'iche herri indigenakoarekin. Autore hauek ikuspegi feminista, indigena, lesbiana, hiritar eta afrokolonbianotik hitz egingo dute gorputz-lurralde terminoari buruz. Yuderkisek (2014:9) “subjektu ekintzaile moduan

gure bilakaera analizatzea dela” eta Doroteak (2013:26) “praktika patriarkalak arbuiatu ahal izateko, maitasun handia, erabakitzeke indarra eta balorea eskatzen duen etengabeko ikasketa” dela definitzen dute.

Are gehiago, *Colectivo Miradas Criticas del Territorio desde el feminismo*-tik enpresa transnazionalak lurraldeetan instalatzen direnean lurraldea nola maskulinizatzen duten hausnartzera iritsi dira eta horri “lurraldeen patriarkalizazioa” deitu diote. Lorena Cabnal-ek (2010) lurralde eta lurraren desjabetzea penetrazio koloniala sartzen hasi zen unetik analizatu beharko lirakekeela uste du. Honekin batera, sistema estruktibo neoliberalak ere bere baitan, naturaren errekurtsoen aurkako prozesu historikoan parte hartzen duela azpimarratzen du. Sistema honek, herri indigenetako errekurtso naturalen erauzketa eta arpilatzea eragiten duela adierazten du, ondorio modura emakume indigenek naturarekiko duten harremana larriki mehatxatuz.


Gorputzaren aurka erasotzen duen estruktura historikoen aurrean, gorputzaren zainketa eta berreskuratzea gauzatzeko, etengabeko borroka bihurtzen dela dio Cabnal-ek (2010). Honen arabera, uneoro bizi ditugun paktu maskulinoak deseraikitzea, kuestionatzea eta diskurtso horiei buelta ematean datza. Lehen aipatu ditugun espazio konkretu horietatik erresistentzia historikoa onartu eta bizitza duina bultzatzea eskatzen du gorputz-lurralde-lur kontzeptuak. Gehiago esateko, emakume indigenen arbasoen memoria berreskuratzean datza, haien bizitza eta istorioak saretzen joateko.

Bestalde, kontzeptu honek eskala txiki zein barnekoenean fokua jartzen duela dio Cruz Hernándezek (2016). Hain zuzen ere gorputzean. “donde nuestro cuerpo es el primer territorio de lucha” esaten du (Cruz Hernández, 2016:43). Aldiz, gorputz femeninoa eta gainontzeko gorputz disidenteak beste zapalkuntza eskala batzuen zein erresistentzien irudikapenak direla dio: familia, plaza publikoa, komunitatea, auzoa, antolaketa soziala, lurralde indigena etab.

Gorputz-lurralde-lur proposamen honek, norberak gorputzera zein lurralde bizi eta historikoetara begirada botatzera gonbidatzen du. Leku hartan, memoria, jakintzak, minak, desirak, amets indibidual zein komunak daudela ohartuko gara. Cruz Hernándezek (2016), lurraldeak gorputz sozialak bezala ikustera gonbidatzen du, bizitza sarean integratuta daudelarik eta horrenbestez, haiekiko erlazioan dominazioak lekurik ezin duela eduki azpimarratzen du.

Bukatzeko, nahiz eta atal honetan autore desberdinen definizioak ematen saiatu, argi utzi beharra dago, emakume indigenak ez direla iritsi kontzeptu honen esanahiaren konklusiora. Haien asmoa galderak planteatzea eta gorputz-lurralde-lurrari buruz eztabaidatzea dela adierazten du Cruz Hernándezek (2016).

### 3.taula: Gorputz-lurralde-lur defentsa



Iturria: norberak egina.

### 4. ASPEKTU METODOLOGIKOAK

Mugimendu sozial honen ikerketa zehatz eta aberats hau aurrera eraman ahal izateko iturri desberdinak erabili dira. Alde batetik, Erving Goffman-ek 1974.urtean *El análisis del marco: Un ensayo sobre la organización de la experiencia* obran landutako erreferentziatzko markoen analisia geroago Hunt, Benford eta Snow-ek (2001) ikuspegi hori mugimendu sozialetara egokituko dutena abiapuntutzat hartuz, antzerako eskema jarraitzea erabaki da *Defensoras* mugimendua aztertzeko. Hiru egile horien ikerketak, erreferentziatzko markoen eta identitate kolektiboen eraikuntzen arteko lotura aztertzeaz arduratzen dira. Analisisien markoen metodo horrek, mugimendu soziala bere baitan nola sortzen den identifikatzen laguntzen du eta baita sorrera horretan errealitatearen diagnostikoak eta arazoen soluzioak nola interferitzen duten ikusten da. Bestalde,

metodologia kualitatiboa erabiliz, elkarrizketatik eta eztabaida taldetik ateratako datuak ere ezinbestekoak izan dira kasu azterketa egiteko orduan.

Metodologia kualitatiboaren barnean, metodo deskriptiboa erabili da ikerketa honen sarreraren prozedura aurrera eramateko. Metodologia deskriptiboa ikerketa sozialen diseinuen barnean aurkitzen da. Lehendabizi, interesezko fenomeno bat antzematen da eta hortik abiatuta, prozesu eta jokabide desberdinak aztertzea da metodo horren helburu nagusia (Murillo, 2018).

#### **4.1. Markoen analisisia**

Aipatutako markoen analisisien metodoa *Defensoras* jendarte mugimendua aztertzeko erabili da. Analisi hau hiru atalez osatuta dago: marko motibazionala, marko diagnostikoa eta marko pronostikoa. Marko motibazionalean, jendarte mugimendu horren identitatea azaltzen da, hau da, mugimendu hori sortzeko ezinbestekoak izan diren protagonistak. Marko pronostikoan hiru azpi atal bereizten dira: lehenik, mugimenduak aurre egin behar duen arazoak aurkezten dira; bigarrenik, arazo horien zergatiak azaltzen dira; eta hirugarrenik, arazo horien arduradunak (antagonistak) nortzuk diren identifikatzen dira. Bukatzeko marko pronostikoan, arazoen soluzioak zeintzuk izan litezken aurkezten dira: mugimenduaren helburuak; arazoen soluziorako aktore desberdinak izan ditzaketen rola planteatzen dira; estrategiak eta ekintzak; eta azkenik, mugimenduak norengana iritsi nahi duen aurkezten da, honako hau audientzia bezala aurkeztuz.

#### **4.2. Elkarrizketak**

Iturri akademikoez aparte, lan honen ikerketa, subjektuetan zentratzen da eta hauek, aztertu nahi den mugimendu sozialari buruz beraien barne perspektiba ematen dute modu integralean. Ikertzailea parte hartzaileekin eta baita datuekin erlazionatzen da eta elkar eragiten du. Horrenbestez, metodologia kualitatiboak datu deskriptiboak ematen ditu, hauek pertsonak esaten edota idazten duten hitzak eta baita ikusi daitekeen jokaerak dira (Quecedo y Castaño, 2002).

Datu bilketarako teknikei dagokionez, alde batetik lau elkarrizketa burutu dira. Martin-ek (2010) dioen bezala, elkarrizketak helburu bat eduki behar du eta horren baitan burutu da, egoera eta gertakizunen informazio guztia modu subjektiboan bildu baita. Hain zuzen ere, elkarrizketak lanaren hirugarren helburua aztertzeko burutu dira, hain zuzen ere mugimendu sozialaren dimentsio ekintzailea aztertzeko, hala nola, errealitatearekiko egiten duten diagnostikoa, etorkizunean dituzten erronkak etab. ezagutzeko.

Martin-ekin (2010) bat etorri, elkarrizketa egin aurretik, gidoi bat prestatu da, bertan, galdera zehatz batzuk planteatuz. Gidoi hori \*eranskinen bigarren orrialdean aurkezten da. Elkarrizketa aurrera eramateko garaian, ez da jarraitu ordena zehatz bat, uneak eskatzen duen ordena eroso bat jarraitzeko eta honi esker, giro informal eta atsegina sortu ahal izateko, bidean kontu garrantzitsu bat bera ere, ahaztu gabe. Baita ere, emaitzen egiazkotasuna zaintzeko, giro egokia sortzeko asko lagundu du:

elkarrizketatuak izan diren pertsonen une egokia aukeratu da, galderei lasaitasun osoz erantzuteko askatasuna zutela adierazi zaie bertan esandakoa erabat anonimoa zela jakinaraziz eta edozein galderei erantzuteko prest ez bazeuden hori egiteko eskubidea zutela aditzera emanaz.

Bestalde, Lumaltik Herriak erakundearen eta Berdinak Gara taldearen eskutik sortutako *Defensoras: lurrarekin taupaka* liburua erabiliko da lan honetan iturri akademiko modura. 2019. urteko abuztuan bidai bat osotu zuten Txiapas, Guatemala, El Salvador eta Hondurasen barrena eta bertan emakume, komunitate, herri indigenen eta LGTBIQ+ kolektiboen eskubideen defendatzaileak diren 30 emakume ezberdinen istorioak entzun eta jaso zituzten, liburua sortzeko asmoz. Horrenbestez, liburu horretan azaltzen diren emakumeen testigantzak hartuko dira lana osatzeko.

Elkarrizketak Mesoamerikako 4 emakumeei egin dira 2021eko martxotik maiatzera bitartean Lumaltik Herriak erakundeko egoitzan. Esan beharra dago, arrazoi ezberdinegatik emakume hauek Euskal Herrira migratu dutela, ikasketengatik, arrazoi politikoengatik erbesteratuak izan direlako etab. Emakume migratuak izateaz aparte, mugimendu hau gertutik ezagutzen dute eta mugimenduaren parte dira, horregatik izan dira aukeratuak elkarrizketak burutzeko. Beste era batera esanda, mugimendua sortu den lekuan jaio dira, beraz, ondotxo ezagutzen dute bertako pentsaera, bizi filosofia, bertako egoera etab. Proiektu estraktibisten ondorioz, Mesoamerikan gertatzen diren sarraskiak lehen pertsonan bizi izan dute horietako batzuk eta baita haien familiek edota auzokideek. Euskal Herritik elkartasuna eta laguntza ekonomikoa bidaltzeko ahalegina egiten dute.

Ezaugarri horietaz aparte, giza eskubideen defentsengatik borrokatzen dute etengabe. Haien egunerokotasuna estuki loturik dago praktika horrekin, Euskal Herritik zein beraien jaioterritik horren alde egiten dute. Gainera, emakume defendatzaileen egoerak tratatzen dituzten kolektibo desberdinetako kide eta militanteak dira. Hurrengo taulan elkarrizketatuen inguruko informazioari buruz sakonduko da:

<b>Elkarrizketatua</b>	<b>Berari buruz</b>	<b>Adina</b>	<b>Jaioterria</b>
E1	Giza eskubideen defendatzailea. “Red nacional DDHH en Honduras”, “Red mujeres migradas hondureñas” madrilen eta “Red de mujeres de Artea” kolektiboetako kidea.	33 urte	Honduras
E2	Aktibista lokala, “Mujeres Tejiendo red” kolektiboko kidea	33 urte	Guatemala, maya k’iche herrikoa

E3	Herri hezitzailea, feminista, soziologoa, emakume migratuen aldeko aktibista. “Mujeres del mundo” eta “Garaipen-Gipuzkoa”-ko militantea.	57 urte	El Salvador
E4	Feminista, aktibista eta giza eskubideen defendatzailea. EH Feministak Nika eta “Red de mujeres racializadas en EH” kolektiboko kidea.	32 urte	Nikaragua

Iturria: norberak egina.

### 4.3. Talde eztabaida

Ikerketa kualitatiboko bigarren teknika moduan talde eztabaida erabili da. Altuna-k (2009) dioenez, teknika hau hizketatik, diskurtsotik eta komunikaziotik abiatzen da. Beste teknika batzuekin alderatzen badugu adibidez lan honetan erabili den elkarrizketa teknikarekin, autore honen ustez, eztabaida taldeak egoera sozial jakin bat berrantolatzen du diskurtso bat sortuz. Diskurtso horretan elkarrizketa bat garatzen da eta momentu horretan hizketakideak desagertu egiten dira. Gehiago esateko honela definitzen du: “eztabaida-taldea ingurumari sozial bat da, elkarrizketa bat sortzen du, eguneroko ingurumarietara hurbiltzen saiatzeko, eta horretarako elkarrizketa logika *naturalak* berregiten ditu” (Altuna, 2009:91). Autore honen arabera, eztabaida taldeak metodologia kualitatiboan informazioa lantzeko erabiltzen diren bi tekniketako elementuak dauzka: behaketa parte hartzailea eta elkarrizketa sakona.

Bestalde, Berger eta Luckmann-en (1984) arabera, metodologia honen helburua ez da kuantifikatzea, ikertu eta eraldatu nahi den gizarte errealitatean zuzenean inplikaturik daudenen adierazitako itxaropen, jakintza iritzi eta ideologian sakontzea baizik. Hortaz, autore hauek diotenez, *unibertso sinbolikoak* antzeman behar dira, horiek ematen baitiote gizakientzat esanahia errealitateari.

Metodo honen helburua gai espezifiko baten inguruan aritzea izango da, kasu honetan lanaren laugarren helburuari buruz, Mesoamerikako emakume defendatzaileen mugimenduak Euskal Herriko feminismoarekin eta gizartearekin zer-nolako lotura daukan aztertzeaz, hain zuzen ere. Horretarako, Lumaltik Herriak erakundeak burutzen dituen proiektuetan parte hartu duten lau emakumeri egin zaie eztabaida taldea. Hain zuzen ere, Lolita Chavez-ek emandako hitzaldi batean eta rap feminista tailerrean parte hartu dute. Emakume hauek gipuzkoarrak dira eta 21-27 urte bitartean dituzte. Emakume feminista bezala izendatzen dira eta denek daukate Euskal Herriko talde feminista batekin lotura, Oñatiko Bargastak eta Deba-Itziarreko talde feministan militatzen baitute.

Parte hartzaile hauen praktika profesionala elkarren artean desberdina izan arren, 4ak konpartitzen dute Mesoamerikako emakume defendatzaileen errealitatea ezagutzeko interesa eta horrenbestez erakundeko proiektu desberdinetara hurbiltzeko eta parte hartzeko ahalegina egin dute, haien errealitatean sakontzeko eta Euskal Herritik nola lagundu dezaketen hausnartzeko.

Gehiago esateko, norbanako batzuk elkarren artean ezagutzen dira herri berdinekoak direlako eta talde feminista berdinean elkarrekin militatu dutelako. Baina bestela, 4ak behin bada ere elkar ezagutu dira lehen aipatu dudan erakundeak sorturiko proiektuetan..

#### **4.3.1 Landa lana**

Eztabaida taldearen landa lanari dagokionez, EHU-ko protokolo etikoa kontutan hartu da eta parte hartzaileei ikerketa honetan parte hartzeko, eztabaida taldearen grabaketa eta ondoren honen transkribapena egiteko baimena eskatu zaie. Sinatutako baimenak \*eranskinen lehengo orrietan aurkezten dira.

Parte hartzaileekin eztabaida taldea zoom plataformaren bitartez burutu zen bideo dei bat eginez. Bideo deia egitearen arrazoi nagusienak besteak beste, Covid19 pandemia, lana eta herri desberdinetako jendea batzeak ekarri dizkigun zailtasunak izan dira. Bideo deiaren plataforma, eguna eta ordua parte hartzaile guztiengandik aukeratua izan zen, aurretiaz ezagutzen zuten plataforman eraso sentiarazteko eta denek ahal zuten orduan kointziditzeko.

Eztabaida taldeetan ondo antolatu behar da eztabaida eta horretarako gidoi bat elaboratu zen tratatu nahi ziren gaiak kontutan hartuz. Landutako gidoi hori, \*eranskinetako hirugarren orrialdean aurkezten da. Juaristi-ren (2003) arabera, parte hartzaileek landu nahi diren gaiak argi eduki behar dute, eta horretarako gidodia eztabaida taldea burutu aurretik haiei bidalia izan zen, nahiz eta gaia ezagutu, galderak zeri buruz izango ziren aurretiaz jakiteko.

Eztabaida taldearen denborari dagokionez, gomendagarriena ordu bat edo ordu eta erdi edukitzea izango lirateke. Kasu honetan, hizketaldia ordu betekoa izan zen. Honen arrazoa eztabaida taldea burutzeko unean zailtasun batzuk suertatu zirela esan beharra dago. Berez, eztabaida taldean bost protagonistek parte hartu behar zuten baina azkenean lau izan ziren, parte hartzaile bat ez zelako konektatu bideo deian, nahiz eta aurretiaz bere izena eman eta ordua eta baita eguna berarekin batera adostua izan zen. 10 minutu inguru berari itxoiten egon ginen eta ondorioz beranduago hasi zen eztabaida taldea. Jendeak zereginak zituen, beraz ezin izan zuten denbora gehiagoan geratu.

Eztabaida taldearen audioa zoom plataformaren bitartez grabatua izan zen. Plataformak aukera ematen du grabatzeko eta bideo deia bukatzen denean bideo eta audioa moduan gordetzen du. Callejo-k (2001) azpimarratzen duen moduan grabaketa bideoa, audioa baino intrusiboagoa da eta izan liteke parte hartzaileak hasieran lotsatzea bideo grabaketa ikusten baldin badute baina kasu honetan bideo deia izan denez eta plataformak pantaila grabatzen duenez ez da hain intrusiboa izan.

Hortik jasotako informazioa transkribatua izan da. Lan hori aurrera eramateko Olabarri-k (1997) planteatzen duen argibideak kontuan hartu dira. Argibide horiek, transkribapena egin ahal izateko erabiltzen diren arau desberdinak dira. Kasu honetan, parte hartzaileak beraien izenaren inisialaz daude identifikatuta eta elkarrizketatzailea edo moderatzailea “M” batekin. Jasotako informazioaren transkribapena egin ostean, informazio horren emaitzen analisiaren prozedurara jo da eta azkenik, ikerketa ixteko bukaeran ondorioak aurkeztu dira.



## **5. IKERKETA ENPIRIKOA: GORPUTZ-LURRALDE-LURRAREN KONTZEPTUA PRAXIAN: DEFENSORAS MUGIMENDUAREN KASUA**

Ikerketa enpiriko honetan, Defensoras mugimendua aztertuko da markoen analisia, elkarrizketak eta eztabaida taldea teknika metodoak erabiliz. Mugimendu honek marko teorikoan aipatu dugun ekofeminismo eta feminismo komunitario korroneak ebidentziatzat hartu eta praktikan jartzen ditu. Mugimendu hau, gizarte ez garatu batean ematen da eta nahiz eta emakume horiek mendebaldeko pertsonen moduan sistema kapitalista batean murgilduta egon, eskala desberdina da eta ondorioz, beraiek natura hurbilago sentitzen dute eta beraz, gaur egun haien lurraldeetan enpresa transnazionalak burutzen dituzten proiektu handien aurka aldarrikatu eta lurraren aldeko defentsa egiten dute.

### **5.1. Marko motibazionala: nortzuk dira giza eskubideen emakume defendatzaileak?**

Atal honetan, IM-Defensoras (*Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos*) jendarte-mugimenduko protagonistak nortzuk diren, zein urteetan sortu zen, zein kolektibok osatzen duten eta beraien artean nola antolatzen diren azalduko da.

Hasteko, haiek burutzen dituzten ekintzen ideia aipamen nagusiak azalduko ditugu. Emakume hauek, modu baketsuan herri indigenen autodeterminazioa, lurraldearen aberastasuna eta errekurtsu naturalen eskubideak babestu, defendatu eta bultzatzen dituzte. Aurrera eramaten duten aktibismoa indibidualki edo kolektiboki egin dezakete baserri zein hiri eremuan. Aktibismo hori boluntarioa edo profesionala izan daiteke eta ez dauka zertan mugimendu edota erakunde batekin afiliatua egon beharrik. Horretaz aparte, borroka hau maila lokalean, nazionalean eta internazionalen eman daiteke. Pertsona hauek *Declaración sobre los Defensoras de los Derechos Humanos*-en babesaz kontatzen dute aldarrikapenak modu seguruan egiteko orduan (Amnisitía Internacional, 2016; Global Witness, 2017b; Naciones Unidas, 1999).

Mesoamerikako emakume defendatzaileei buruz hitz egiten ari garenez, emakume indigena eta nekazal identitateari eta bere errekonozimenduari buruz hitz egiten ari gara. Kolektibo hau, komunitateetako bizitzarako eskubide espezifikoekin uztartzen da. Ama lurra defendatzeko borrokatzen dute, bizirauteko eta familiaren ongizaterako (de León, C. 2019).

Elkarrizketatuei haien burua nola deskribatzen duten galdetzen diogunean, denak bat egiten dute aktibistak direla aipatzen dutenean. Haietako batzuk, feministak ere kontsideratzen dira baina batek bakarrik ikusten du bere burua *defensora* bezala. Parte

hartzaille hau, Honduraseko Guapinol komunitatean 2018tik burutu nahi izan duten megaproiektuaren aurka altxatu zen bere jendearekin batera eta pertsekuzioarengatik Euskal Herrira erbesteratu behar izan du. Horrenbestez, nahiz eta Mesoamerikan ez egon, bere burua *defensora* moduan ikusten du, Euskal Herritik komunitatea defenditzen eta elkartasuna adierazten jarraitzen duelako. Beste hiru elkarrizketatuek, *defensora* izatea lan karga handia dela uste dute, bizitza arriskuan jartzea eta nahiz eta beraiek, Mesoamerikakoak izanda bertako errealitatea eta borroka ezagutu, gaur egun Euskal Herrian egonda, ez dute ikusten hangoek bezain besteko defentsa egiten dutenik: “*se me queda grande y por el respeto a las compañeras por saber que en Centroamérica en este caso conlleva muchísimo más de lo que yo pueda estar viviendo acá.*” (E3) Beste batek, *defensora* izateak egoera desberdinen aurrean aurpegia ematea eskatzen duela azpimarratzen du, batez ere lurraldearen defentsa burutzean.

Sorrerari dagokionez, mugimendua 2010.urtean Mesoamerikako giza eskubideen emakume defendatzaileen biolentzien hazkuntzari herrialdeko erantzun osoa emateko helburuarekin sortu zela aipatu beharra dago. Mugimenduak, Mesoamerikako erakunde desberdinen zein jendarte mugimenduetan parte hartzen duten emakume defendatzaileak sendotzea eta elkartzea bilatzen du, haien artean elkartasunezko eta babeseko sareak indartu ditzaten. Baita ere, giza eskubideengatik egiten duten lanaren inpaktua, errekonozimendua eta ikusgaitasuna handitzea dauka helburutzat (IM-Defensoras, 2015).

Mugimenduak aurrera eramaten duen borrokari dagokionez, ibilbide luzekoa dela aipatzen du parte hartzailetako batek: “*las mesoamericanas tienen toda una trayectoria de vida y de hacer política, pero también de hacer vida y hacer resistencia desde formas relativas de hacer economía.*” (E3) Borroka horrekin batera belaunaldiz-belaunaldi barneratzen joan dira feminismo komunitarioaren ideiak eta mundu ikuskera. Haien arbasoek gaur egun lurra ulertzeko daukaten bisio, lotura eta defentsa modu berdinean eramaten zuten, modu komunitarioan hain zuzen ere. Adibide bat ematearren, Amazonasen bizi diren indigenak haien gaixotasunak sendatzeko lehengaiak landareetatik ateratzen dituzte, lurrarekin lotura berezia izaten jarraitzen dute: “*el trabajo de defender la tierra siempre ha existido.*” (E2).

*IM-Defensoras* mugimendua El Salvador, Honduras, Guatemala, Mexiko eta Nikaraguako zenbait kolektibok osatzen dute: *Colectiva Feminista para el Desarrollo Local* (El Salvador), *JASS* (Asociadas por lo Justo), *Consortio para el Diálogo Parlamentario y la Equidad Oaxaca* (Mexiko), *UDEFEQUA* (Unidad de Protección a Defensoras y Defensores de Derechos Humanos de Guatemala), *AWID* (Asociación para los Derechos de la Mujer y el Desarrollo) eta *FCAM* (Fondo Centroamericano de las Mujeres). Osotasunean, 691 emakume baino gehiago batzen ditu (Ávila, 2016).

## Irudi 1: Mesoamerikako mapa



Iturria: *famsi.org*, (s.f.), eskuragarri hemen: [http://www.famsi.org/spanish/maps/meso\\_countries.htm](http://www.famsi.org/spanish/maps/meso_countries.htm)  
[Kontsulta eguna: 2021/01/02]

Mugimendu hau bultzatzen duten erakundeek, eskualdean nagusi diren emakumeen aurkako zapalkuntzen testuingurua kontuan hartzen dute eta horretarako, babes osoko alternatiba feministak eraikitzea bilatzen dute, emakume hauek burutzen duten lanagatik jasaten duten biolentziei erantzun bat emateko eta baita, berdintasunez, ongizatez eta segurtasunez beraien eginkizunekin jarraitu ahal izateko, kontuan hartuta eskualde horretan emakumeek pairatzen duten diskriminazio egoera (IM-Defensoras, 2015).

Antolaketari dagokionez, parte hartzaileak Mesoamerikakoekin komunikazioa izaten jarraitzen dutela ikusi dugu. Lehen aipatu dudan Honduraseko parte hartzailearen kasuan, uneoro bere komunitatearekin kontaktua izaten jarraitzen du, zenbat atxilotu egon diren edota prozesuak aurrera nola jarraitzen duen informazioaren berri dauka. Lumaltik Herriak erakundeari esker Euskal Herriko txoko desberdinetan, Donostian esaterako, zenbait topaketan parte hartu du bere komunitateko errealitatea kontatuz eta modu horretan hangoi elkartasuna bidaltzen eta egoera salatzen ahalegintzen da. Beste parte hartzaile batek, urtero edota urte bitik behin emakume defendatzaileen topaketak egiten direla azpimarratu du. Kontuan hartzekoa da, Covid-19ak, aurreko urtean hango defendatzaileak hona etortzea oztopatu zuela baina aurten aurrera eramatea aurre ikusten da. Bestalde, sare sozialen garrantzia azpimarratzen dute hangoekin komunikatzeko: “hacer activismo a través de las redes sociales, son logros que se han dado por hacer de esto un movimiento colectivo.” Zuleyma Arauz<sup>5</sup>, Lumaltik Herriak

---

<sup>5</sup> El Salvadorreko Colectiva Feminista herri garapenerako erakundearen defendatzailea

(2020:91) Elkarrizketatutako beste batek honakoa azpimarratzen du sare sozialen inguruan:

*“nosotras desde aquí somos altavoces. estamos en constantes iniciativas de denuncia, siempre por las redes sociales. Desde aquí tenemos un poco más de libertad para poder denunciar y exigir esa libertad para nuestras hermanas porque realmente ellas allá están bastante solas. Hay ahora una “ley de agentes extranjeros” y está prohibido que entre dinero al país de las organizaciones que no pasen directamente por el gobierno.”*  
(E4, 32 urte Nikaragua)

## **5.2. Marko diagnostikoa: zein da IM-Defensorasen gatazka?**

Bigarren atal honetan mugimenduak errealitatearekiko egiten duen diagnostikoa aurkeztuko da hiru ataletan banatuz. Lehenik eta behin, mugimenduak egiten duen gatazken testuingurua zein den azalduko da eta horren batera identifikatzen dituzten arazoak aurkeztuko dira; bigarrenik, gatazkak nondik datozen identifikatzeko hiru ardatz azpimarratuko dira eta azkenik, antagonistak zeintzuk diren identifikatuko dira.

### **5.2.1. Mesoamerikako emakume defendatzaileen gatazkaren testuinguruaren irakurketa**

Ondoren aipatuko den Mesoamerikako emakumeek pairatzen dituzten gatazken testuinguruaren azterketa egiteko informazioa *IM-Defensoras Informe de Agresiones 2012-2014*-tik atera da. Atal hau egiteko, oso baliagarria izan da txosten horretako informazioa. Bertan, emakumeek pairatzen dituzten gatazka nabarmenenak azaltzeko bi sailkapen nagusi egiten dute: alde batetik ezberdintasun estrukturala desberdintzen dute eta bestetik, giza eskubideenganako biolentziak eta biolentzia horiek eragiten dituzten krisiak.

#### **A) Ezberdintasun estrukturala:**

Ezberdintasun estrukturalari dagokionez, CEPAL-ek (Comisión Económica para América Latina y el Caribe) aipatzen ditu. Berdintasuneko indikadoreetan (autonomia fisikoa, erabakiak hartzeko autonomia eta autonomia ekonomikoa) ateratzen diren datuak dira hauek (Informe IM-Defensoras, 2012-2014).

- Autonomia fisikoa: eskualde horretako emakumeak hil egiten dira haien bizitzekin eta gorputzekin loturiko autonomia falta dela eta. Kasu asko, haurdunaldiarekin lotuta daude, 2013.urtean Guatemalan 140; Hondurasen 120; Nicaraguan 100; El Salvadorren 69<sup>6</sup> eta Mexikon 38.2 izan ziren. OMS-ren

---

<sup>6</sup> Muertes maternas por cada 100.000 nacidos vivos. Observatorio de Igualdad de Género. Indicadores de Igualdad. CEPAL. <http://www.cepal.org/oig/afisica/> Datos del año 2013

(Organización Mundial de la Salud) arabera, nerabeek 20 urtetik gorakoek baino lau aldiz arrisku gehiago sufritzen dute haurdunaldiगतiko heriotza. Honekin loturik, eskualde honetan, abortua zigortzen duten hiru herrialde aurkitu ditugu (El Salvador, Honduras eta Nicaragua). Guatemalaren kasuan, abortua legala da soilik ama arriskuan baldin badago. Politika honek, bortxaketa sexualen biktimak izan diren emakumeei edota haurdunaldiarekin jarraituz gero, bizia galdu dezaketenei prozesua geldiaraztea debekatzen diete. CEPAL-eko datuen arabera, honek nagusiki emakume pobre, gazte eta herritik urrun bizi direnei eragiten die (Informe IM-Defensoras, 2012-2014).

- Erabakiak hartzeko autonomia: Mesoamerikako eskualdean emakumeen eta gizonen parte hartze politikoa ez da berdintsua, 2012. urtean Nicaraguak eta 2014. urtean Mexikok soilik haien legedietan sartu dute parekidetasuna (Informe IM-Defensoras, 2012-2014).
- Autonomia ekonomikoa: eskualde honetako landa-eremuko zein hiri-eremuko emakumeen diru-sarrera ez propioen portzentaia oso altua da eta horrekin batera lan ez ordaindua egiteगतik sartzen dituzten orduak ere oso altuak dira. Lan karga handiak burutu behar dituzte, adibidez, umeen eta nagusien zaintza. Lanordu hauek ez daude diruarekin errekonozituta eta ezta ere gizonekin parekotasunean banatuta. Guatemala eta Honduraseko emakumeen diru-sarrera ez propioen portzentaiak dira altuenak: Guatemalan, %31,2 landa eremukoak eta %52 hiri eremukoak; eta Hondurasen, %49,3 landa eremukoak eta %32 hirikoak. Mexikoren kasuan, %28 baino gehiago dira landa zein hiri eremukoen kasuak eta El Salvadorren kasuan, %42,3 landa eremukoak eta %29,6 hiri eremukoak. Gai honekin loturik, aipatu beharra dago, eskualdean azken hamarkaldian ezarri diren politika desberdinek zerbitzu publikoak pribatizatu eta eskatu dutela. Honek gehigarritzko lan karga suposatzen die emakumeei zaintza eta osasun familiarren arloei dagokionez (Informe IM-Defensoras, 2012-2014).

## B) Giza eskubideenganako biolentziak eta krisia

Giza eskubideenganako biolentziei dagokionez, militarizazioa, lurraldeen eta komunitateko errekurtsu naturalen espoliazioa, protesta soziala debekatu eta kriminalizatzen duten legeak bezalako adibideek eskualdean krisia eragiten dutela esan genezake. Herrialde batzuetan emakumeen aurkako biolentzien gorakadak kezkatu egiten du. Horrekin lotuta, emakumeen aurkako biolentzien prozesu judizialetan inpunitate sistemikoaren patroia existitzen dela aipatu behar da. Biolentzia horietan gero eta modu krudelakoak aplikatzen dira, esklabotza eta tortura sexuala barne hartzen dutenak adibidez (Informe IM-Defensoras, 2012-2014).

Gainera, Mesoamerikako kulturak emakumeen aurkako biolentzia normalizatzen eta onartzen du. Halaber, feminizidioen indizetan hazkuntza egon dela ikus genezake. Hondurasen kasuan, 2005. urtetik 2013. urtera emakumeen erailketa %263,4 igo zen. El Salvadorren, 2014. urtean 292 emakume erailen datuak erregistratu ziren, 2013.

urtearekin konparatuz 77 kasu gehiago. Nicaraguan, 2012. urtean 72 feminizidio kasu eta 2013. urtean 66 kasu erregistratu ziren. Mexikon, 2012 eta 2013. urteetan 3892 emakume feminizidioaren biktimak izan ziren. Guatemalako gatazka armatuan zehar biolentzia jasandako emakume biktimak justiziarik gabe jarraitzen dute. Bertako biolentzia sexualen denuntziei dagokionez, 2008tik 3163 izatetik 2013an 10343 izatera iritsi ziren (Informe IM-Defensoras, 2012-2014).

Horretaz aparte, eskualdean industria proiektu estraktiboak areagotu dira. 2011. urtean zentroamerikako lurraldeen %14a meatzaritzako enpresei kontzezionatua izan zen. Honduras eta Guatemala dira kontzesio gehien dituzten herrialdeak. Mexikoren kasuan,, lurralde osoaren %40a kontzesionatua izan da eta 2015eko abuzturako enpresarien eta komunitateko populazioaren arteko 418 gatazka puntu identifikatu ziren (Informe IM-Defensoras, 2012-2014). Estraktibismoa, Maria Mies eta Vandana Shiva, (1993); Silva (2017); eta Yayo Herrero-ren (2014) arabera ingurunea suntsitzen duen ekintza predatzailea da. Azken urteetako globalizazio ekonomikoa kontrolatzen dituzten politika neoliberalen bitartez garatzen dela azpimarratzen dute.

Enpresa multinazionalak gobernuaren bermeari esker, proiektu estraktiboak aurrera eramatea lortzen dute. Ekimen hauek, errekurso materialen esplotazioa (orokorrean mineralak), energia, agroindustria eta makroproiektu turistikoekin erlazionatutako enpresak bultzatuta egoten dira. Proiektu hauek burutu nahi diren lekuko biztanlearekin izaten duten liskarrak azaltzeko Silva-k (2017), *Mujeres y conflictos ecoterritoriales: impactos, estrategias, resistencias* liburuan *conflictos ecoterritoriales* kontzeptuarekin definitzen ditu.

*Conflicto ecoterritorial* horiek, globalizazio neoliberalak esportatzen duen ekonomia inposatzeak ekartzen duen konfrontazioan dauka sorrera. Ekonomia honek, hazkuntza mugagabea dauka, planeta amaikor baterako sostengaezina da eta estraktibismoan euskarria izaten oinarritzen da. Enpresa estraktiboak interes berezi bat daukate lurralde indigenetan, errekurso naturalei dagokionez aberatsak direlako eta oraindik esplotatzeko daudelako (Cobo, 2005; Herrero, 2014; Silva, 2017). Proiektu horien ondorioz, komunitate asko (batez ere indigenak eta nekazariak) kaltetuta ateratzen dira (Silva, 2017). Haien komunitateetatik kanporatuak izaten dira eta Bolaños-azpimarratzen duen moduan komunitate horietan, bidaiatu ezin duen edota hirietan bizitzera ohituta ez dagoen jendea bizi da. Gobernuak haien alde egin beharrean, polizia bidaltzen diela azpimarratzen du komunitateko jendea zigortzeko asmoz (Bolaños, 2017; hemen aipatuta: Curdo, 2017).

Gudynas-ek (2015) gai horren inguruan estraktibismo neutrorik ez dela existitzen uste du, gehien bat ahulenei eragiten dielako. Baita ere, estraktibismoak biolentziaren bitartez lurraldea zulatzen duela azpimarratzen du, besteak beste, komunitateei iruzur egin diela eta enpresekin negoziatzen duten buruzagiak erosten dituztela aipatzen du. Bestalde, ikuspegi produktibo eta patriarkala da, lurraldean bizi

diren pertsonen eguneroko errealitateak aurreikusten ez dituelako (Colectivo Miradas Críticas del Territorio desde el Feminismo, 2014).

Arrazoi hauengatik, emakume defendatzaileak ikuspegi eta garapen modelo sostengarri, integral eta komunitarioengatik apustua egiten dute. Garapen neoliberalaren aurrean bizitza modu alternatiboa daukate eta enpresa zein gobernuek eskaini edota hitzematen dieten abantaila ekonomikoen aurrean naturaren kontserbazioaren aukeraketa egiten dute (Silva. 2017). Estraktibismoaren ondorioz, emakumeak dira gehien sufritzen dutenak lurra eta errekurtsio naturalen sarbidearen galera pairatzen dutelako, errekurtsio horiek, bizitza ematen diete eta beraien familien sostengurako iturri dira. Guereña autoreak, (2016) lurraren aldeko borrokan emakumeek paper garrantzitsua jokatzen dutela baieztatzen du. Beraiek eta haien seme-alabak izaten dira manifestazioen martxan lehenengo lerroan joaten direnak, erresistentzia jarri eta komunitatearen zaintza zein elikadurarengatik arduratzen direnak.

Emakumeak, naturarekin daukaten harremanaren esperientziagatik, kontzienteagoak dira naturak eta errekurtsio naturalek jasaten duten narriadura eta badakite narriadura honek bizian kalteak ekartzen dituela. Horregatik enpresek eragiten duten kalteen aurkako borrokan protagonista bihurtu dira eta are gehiago beraien bizitzak arriskuan jartzen badute. Bazterketaren eta gobernuaren presioaren aurrean, emakume defendatzaileak, haien komunitaterako eskubideak eta justizia lortu eta ingurugiroaren zein lurraldearen defentsan industria ekstraktibistei eta genero patriarkalen arauari aurre egitea bilatzen dute (Barcia, 2017).

Horrenbestez, giza eskubideen defendatzailea izateak arauari eta emakumeen parte hartze politiko-soziala kuestionatzen eta mugatzen dituzten estereotipoei aurre egitea suposatzen du eta noski, disparekotasun egoeran giza eskubideen sustapena eta defentsa burutzea ere bai.

### **5.2.2. Arazoak**

Arazoen atal honetan, aipatzekoa da *IM-Defensoras*-eko erasoen txostenean El Salvador, Guatemala, Honduras eta Mexikoko giza eskubideen emakume defendatzaileek pairatutako 1688 eraso erregistratu zirela. Hain zuzen ere, 2014. Urtean 762 eraso eman ziren. Txosten honen arabera, erasotuak izan diren emakume defendatzaileak %50eko arriskua dute berriro sufritzeko. Aipaturiko eraso nagusienak honako hauek dira:

- %21a beldurraraztea eta zirikatzea psikologikoki (351).
- %16 mehatxuak eta abisuak (265).
- %9 Gezurrak, seinalatzea eta prestigioa kentzeko kanpainak (145).
- %6 indarraren erabilera (101).
- %4 atxiloketa ilegalak eta hautazkoak (71).
- %4 kriminalizazioa eta epaiketak (69) (Informe IM-Defensoras, 2012-2014).

2012-2014 urte bitartean egindako txostenean jasotako datuen arabera, eraso gehien pairatzen dituzten defendatzaileak, lurra eta lurraldea defendatzen duten emakumeak direla adierazten da (Informe IM-Defensoras, 2012-2014).

Ikerketa honetan jasotako datuetan oinarriturik, arazo horiek bi multzotan bereizi ditugu: alde batetik esparru materialean fokua daukaten arazoak eta bestetik esparru kultural-sinbolikoan eragiten dituztenak desberdindu ditugu:

1. Esparru materialetan eragina: adibidez, nekazal industriaren ondorioz sortzen direnak dira hauek, honek zuzenean eragiten diete komunitateko jendeari eta baita haien produkzio lokalari.
2. Esparru kultural-sinbolikoan eragina: herri bakoitzeko jakinduria propioen, praktiken, mundu-ikuskeraren<sup>7</sup> eta identitatea definitzen duten beste zenbait elementu galtzarekin loturiko arazoak dira hauek. Beherago ikusiko den moduan, inguruarekiko inpaktua arazo materialen multzoan sartzen dugu baina azpimarratu behar da, arazo hau kultural-sinbolikoarekin ere zerikusia duela. Ingurunea apurtzeak indigenen kosmobisioa erasotzen du, *Pachamama*-rekin armoniazko, elkarrekikotasun eta errespetuzko erlazio daukatelako.

Datuetatik guztira 12 eraso mota identifikatu ditugu (Taula 4). Eraso mota hauek aurretik aipatu ditugun multzoetan sakabanatzen ahalegindu gara. Adibidez, esparru materialari dagokionez, hauek desberdindu ditugu: komunitateenganako espoliazioa; komunitateetako kanporaketak eta migrazio masiboa; kutsadura eta inguruarekiko inpaktua; eta azkenik, basoen pribatizazioa, deforestazioa eta narriadura. Esparru kultural-sinbolikoan eraso mota hauek sartu ditugu: kriminalizazioa; pertsekuzioak eta kartzelaratzeko; eroskeria eta zirikatzea; desintegrazio familiarra; homogeneizazio kulturala eta arrazakeria historikoa; gaixotasunak eta desnutrizioa; desparekotasunak; emakumearekiko biolentzia mota desberdinak eta erailketa matxistak.

Komunitateak espoliatzeko kutsadura eta inguruarekiko inpaktua sortzen du. Basoak pribatizatzea eta enpresek nahi duten proiektuak bertan aurrera eramatea lurraldea esplotatzeko modu bat da:

“posteriormente al golpe de estado del año 2009 comenzó un concesionamiento masivo de las tierras de todas las comunidades indígenas en general y por lo tanto ha tocado hacer

---

<sup>7</sup> Mundu-ikuskerak/cosmovisión: La cosmovisión es la concepción que un grupo social tiene de su cosmos, es decir su entorno natural y social. Se realiza a través de las preguntas fundamentales como: ¿Quiénes somos? ¿De dónde venimos? ¿A dónde vamos después de la vida?. Significa también, la manera de ser y pensar de los individuos que pertenecen a determinado pueblo y cultura. (Montero, 2016)



mucha oposición en esta región a megaproyectos, a la privatización de los bosques y a la degradaciones y deforestaciones.” Berta Zúñiga Cáceres<sup>8</sup>, Lumaltik Herriak (2020:51).

Gainera, baso horiek pribatizatzek deforestazioa eta narriadura ekartzen dute eta arazo guzti hauek alderdi materialarekin eragiten dute. Hona hemen testigantza bati bere komunitatean gertaturikoa:

“en Santa Rosa de Aguán, en mi comunidad, hay un caso muy polémico con la desviación del cauce del río Aguán. Nos han destruido lo que es la flora y la fauna del río donde consumíamos los pescados. Todo ahora está destruido, y quienes más lo resienten somos nosotras las mujeres. Lo que afecta a nuestra tierra, a nuestro territorio, afecta a nuestros cuerpos. El daño que hacen al territorio nos lo hacen a nosotras, lo hacen a nuestro territorio-cuerpo.” Aurelia Arsún<sup>9</sup>, Lumaltik Herriak (2020:57).

Bestalde, alderdi kultureko arazoak emakume horien bizitzetan, egunerokotasunean, izugarriko krisia eragiten dietela ikusi genezake. Horren adibide ditugu kriminalizazioa, pertsekuzioak eta kartzelaratzek, eroskeria eta zirikatzeak eta desintegrazio familiarra. Elkarrizketatu batek bere komunitatean (Guapinol, Honduras) gertaturiko gatazkak sorturiko arazoak lehen pertsonan kontatzen digu:

*“las consecuencias hacia nosotros es la criminalización violenta directa contra los defensores activistas y persecución, hostigamiento, soborno. También la desintegración familiar, cárcel, muertes... A consecuencia de eso, hay 8 defensores presos, estoy yo en el exilio, otras compañeras en Estado Unidos por lo mismo migraron hacia allá. Desintegración familiar porque las familias esposas e hijos de estos presos políticos están alejados de ellos.”* (E1, 33 urte Honduras)

Testuinguruaren atalean azaldu dugun ezberdintasun estruktural handiak egoteak disparekotasun ikaragarriak sortzen ditu emakumeengan, hauen eskubideak urratuz eta aukerak gutxituz: *“no está bien visto que la mujer esté al frente de una marcha, esté en frente de las protestas porque eso no es el lugar para una mujer, ese lugar es solo para los hombres.”* (E1) Disparekotasun hauek besteak beste, emakumearekiko biolentzia mota desberdinak eta erailketa matxistak eragiten dute, aurreko atalean aipatu dugun bezala. Elkarrizketatu batek emakumeak biolentzia mota asko pairatzen dituela azpimarratzen du: *“estas sufren varias violencias, eso les hace muchas más desamparadas y entran en cualquier tipo de relación.”* (E3) Beste testigantza batek errealitate oso bortitza islatzen digu gai honen inguruan:

“son más de 8 mil mujeres asesinadas después del golpe de estado, y todos siguen en la impunidad. Hemos tenido casos de compañeras que han tenido un aborto en las celdas de las cárceles por la represión brutal que hace el ejército, compañeras que han

---

<sup>8</sup> COPINH-eko (Consejo Cívico de Organizaciones Populares e Indígenas de Honduras) koordinatzaile nagusia

<sup>9</sup> OFRANEH-ko (Organización Fraternal Negra de Honduras) kidea

desaparecido y que días o meses después las encontramos asesinadas. Es bien difícil continuar.” Yasmín López<sup>10</sup>, Lumaltik Herriak (2020:40).

Proiektu estraktiboek komunitateetako kanporatzeak sortzen dituzte eta ondorioz, migrazioa masiboa, gaixotasunak eta desnutrizioa bezalako arazoak ematen dira. Emakume hauek etengabe pairatzen dituzte erasoaldiak:

“estamos enfrentando desalojos, migración, violencia, inseguridad, sobrecarga de trabajo, todo. Las mujeres somos quienes movemos las comunidades; si nos atacan a nosotras están desmovilizando, frenando la comunidad. Las mujeres somos quienes inyectamos vida, por eso somos atacadas.” Suyapa Martínez<sup>11</sup>, Lumaltik Herriak (2020:51).

Gaixotasunekin eta desnutrizioarekin loturik, El Salvadorreko elkarrizketatuak honakoa aipatu digu: *“El Salvador ha tenido los índices de las cosas más dolorosas del mundo, de desnutrición, de enfermedades, por lo tanto, es una sociedad desigual, las que más pagan el costo de esa desigualdad son las mujeres.”* (E3, 57 urte El Salvador)

Gatazken ardatzen atalean, kolonialismoa ardatz nagusizat identifikatu da, horrek Mesoamerikako kulturaren zenbait arazo sortzen dituelarik. Horrekin loturik eta atal honi itxiera emateko, jasotako testigantza batek nabarmentzen duen homogeneizazio kulturala eta arrazakeria historikoa bezalako arazoak ekarriko dira: “nuestra identidad, nuestra cultura y nuestras prácticas están amenazadas por toda la homogenización cultural que se está viviendo y por el racismo histórico que va borrando de a poco toda esa identidad y cultura.” Berta Zúñiga Cáceres<sup>12</sup>, Lumaltik Herriak (2020:51).

#### 4.taula: Arazoak

Arazoen zerrenda
1.Komunitateenganako espoliazioa
2.Komunitateetako kanporaketak eta migrazio masiboa
3.Kriminalizazioa
4.Persekuzioak eta kartzelaratzekak
5.Eroskeria eta zirikatzekak
6.Kutsadura eta ingurugiroarekiko inpaktua
7.Desintegrazio familiarra
8.Basoen pribatizazioa, deforestazioa eta narriadura
9.Homogeneizazio kulturala eta arrazakeria historikoa

<sup>10</sup> Honduraseko CODIMCA-ko (Consejo para el Desarrollo Integral de la Mujer Campesina) koordinatzailea

<sup>11</sup> Honduraseko Emakumearen Irakaskuntza Zentroko koordinatzaile nagusia

<sup>12</sup> COPINH-eko (Consejo Cívico de Organizaciones Populares e Indígenas de Honduras) koordinatzaile nagusia

10.Gaixotasunak eta desnutrizioa			
11.Desparekotasunak			
12.Emakumearekiko desberdinak	biolentzia		mota
13.Erailketa matxistak			

### 5.2.3 Gatazken ardatzak

Gatazken ardatzen identifikazioa osatzeko, Lumaltik Herriak erakundeak burututako *Defensoras: lurrarekin taupaka* liburutik ateratako testigantzak analizatu dira.

Hasteko, liburuko elkarrizketatuek hiru biolentzia mota edota gatazka nagusi identifikatzen dituzte: lurraren eta lurraldearen aurkako biolentzia, defendatzaileen aurkako biolentziak eta identitate ez binarioen eta gorputzen aurkako biolentziak. Biolentzia horiek behin eta berriz salatzen ari dira, horretan sakontzen da haien gaur egungo borroka.

Mugimendutik, salaketa horren ardatz nagusi moduan **sistema kapitalista neoliberala** jartzen dute. Sistema horren funtzionamendu molde berriak, gainproduktzioak, nekazariei eta komunitate lokal horretako indigenei eragiten dietela azpimarratzen dute. Garapen ekonomiko modelo hau guztiz arbuiatzen dute, ez delako sostengarria eta errekurtsu naturalek ez dutelako ematen mundu osoan dagoen populazio osoa mantentzeko lehengai adina. Haietako batek honako hau kontatzen du:

“el neoliberalismo en toda Latinoamérica, sobre todo en Centroamérica, ha avanzado bastante. Estamos hablando de que las grandes empresas extractivas pagan mordida, compran funcionarios. La corrupción está por todos lados. Esto lo terminan pagando los pueblos, que son desalojados de sus territorios. Las mujeres sobre todo enfrentan serias dificultades, el sistema las está asfixiando cada vez más.” Suyapa Martínez, Lumaltik Herriak (2020:51).

Bigarren ardatz nagusitzat **kolonialismoa** identifikatzen dute. Latinoamerikan gertutako konkista europarrak egindako kolonizazioak gaur egun existitzen jarraitzen du beste modu batzuetan, indigenen mundu ikuskera, bertoko jakinduria eta kulturaren elementu propioak zapalduz. Elkarrizketatu baten ustez diktadura arrazista batean bizi dira. Haien lurrek izugarritzko garrantzia daukatela ere ohartu dira, kanpoko enpresek interes asko erakusten dutelako. Kolonialismoak haien kulturetan asko eragin du eta egunerokotasunean asko nabaritzen dute, haien hizkuntza indigena galtzen ari delako, ohiturak, elikagaiak produzitzaile orduan etab.:

“nosotras como mujeres del pueblo garífuna somos las productoras del aceite de coco. Entonces, el estado de Honduras que no nos reconoce como hondureños y hondureñas, mataron al coco para que ya no produzcamos. El amarillamiento letal provocó las pérdidas de los cocos en las comunidades. La mayor parte de nuestra gastronomía se centra en el coco. Era para que consumiéramos el aceite de la palma africana que entró en este país. Un proyecto extractivo, un proyecto de muerte. Nos obligaron a consumir muchas cosas de esa

palma. Ahora padecemos muchas enfermedades que nuestras ancestas no padecían: la presión, la diabetes, el ácido úrico...” Karen García, Lumaltik Herriak (2020:52)

Hirugarren eta azken ardatz nagusi moduan **sistema patriarkala** salatzen dute, emakumeei eragiten dien beste elementu garrantzitsu bat delako eta ondorioz, beraien egunerokotasunean ematen diren mikromatxismoei uneoro aurka egin behar izaten diotelako. Esan beharra dago, emakumeen asanbladetan (internazional zein latinoamerikarretan) hirugarren elementu hau arazoan zergati garrantzitsutzat jartzen dutela, aurreko bi elementurekin batera. Testuinguruen atalean, argi eta garbi islatuta geratu da sistema patriarkalaren eragina, gizon eta emakumeen artean ezberdintasun estrukturalak existitzen jarraitzen baitute. Haietako batek bere hurbilekoei gertatutako esperientzia kontatzen digu:

“Yo No Quiero Ser Violada nace por el malestar de mujeres jóvenes que empezamos a enojarnos y a decir que estamos hartas de que las mujeres seamos violadas en todos los espacios de nuestra vida. Parte desde que el año pasado a una estudiante de medicina la asesinaron por no dejarse violar en un bus. Luego, a una compañera la violaron a pleno día, en uno de los baños de la universidad de la zona norte del país, en San Pedro Sula.” Micaela<sup>13</sup>, Lumaltik Herriak (2020:42).

Honduraseko Yo no quiero ser Violada (YNQSV) mugimendutik 2020ko uztailaren 13an egindako komunikatu batean, emakume zein neska gazteak salatutako biolentzia sexualen aurka agertu ziren. Egun Covid-19 emergentzia sanitarioa dela eta, IM-Defensoras mugimendutik datu hauek maneiatzen dituzte 2020ko martxotik maiatzera biolentzia mota desberdinei dagokionez: 137 denuntzia eraso sexualengatik, 113 biolentzia ahaleginengatik eta 112 emakume bortxatu, 112 denuntzia neska gazteei eginiko abusu zantarrengatik, 69 haurri sexu eraso, 160 biolentzia sexual, 61 denuntzia heldutasunera iritsi ez diren neska gazteekin kontaktu sexuala izateagatik, 4 proxenetismoagatik eta 2 haur eta neska nerabeenganako pornografiagatik.

#### 5.2.4 Antagonisten identifikazioa

Arazoen edota erasoen arduradunei buruz, IM-Defensorasen txostenean aktore estatalak modu agregatuan arduradun nagusienetako moduan agertzen dira eta tendentzia hau ez da soilik eskualde mailan ematen baizik eta, txostenean ikertu diren herrialde bakoitzean ere bai. Lehen aipatu ditugun emakume defendatzaileei egindako 1688 erasoetatik, **%66a aktore estatalek** burutuak izan dira.

Bestalde, erasoen kasuen %22en arduradunak enpresa eta negozioetako merkataritza-agenteak edota jabeak izaten dira. Emakume defendatzaileen hurbileko inguruetakoek familiak eta erakunde bereko kideek ere %5 baten erasoak pairatzen dituzte txosten horri dagokionez. Hor ageri den arabera, aipatzekoa da %27 batek erasotzailearen identitatea ez duela ezagutzen (Informe IM-Defensoras, 2012-2014).

---

<sup>13</sup> Honduraseko Yo no quiero ser violada mugimenduko aktibista

Gudynas-ek (2015), **estaturia** jartzen du egoera guzti hauen lehenengo arduradun moduan eta ez mugimendu sozialak. Estaturiak estraktibismoa landatu duela dio, garapen ekonomiko seguru, pobreziaren gutxitze, inpaktu gutxi duen ekintza eta benefizio seguruaren modura saldu duela azpimarratuz eta horrenbestez, garapen eredu honen aurka alerta ohartarazten duen orori mespretxatzen diola azpimarratzen du. Autorearen arabera, estraktibismoa landatzeko, urteetan zehar biolentziaz baliatu da eta horrela jarraitzen du. Autore honen ustez, estaturaren biolentzia hor dago beti, Gobernu Kanpoko Erakundeak zigortuz edota komunitate lokal, nekazari eta indigenei gogor eraginez.

Estaturaren biolentziaren ondorio modura, sarritan bai beraiek eta baita beraien familiakoak mehatxatuak eta erasotuak izaten dira. Emakume defendatzaileak biolentzia espezifikoa pairatzen dute emakume izateagatik; biolentzia fisikoaren, psikologiko eta sexualaren, aurreiritzien, bazterketaren eta gutxiespenaren objektu izaten dira. Haien erasotzaileen helburua, beraien defentsaren borroka neutralizatzea da eta honako hauek transnazionalen langileak edota Estaturaren indar polizialak izaten direla azpimarratzen du Curdo-k (2017). “Gatazkek, generoaren artean existitzen diren desberdintasunak eta emakumeak estatu mailako edo estatu mailakoak ez direnen aldetik generoaren arrazoiagatik jasan dezaketen biolentzia desberdinak pairatzeko duten arriskua handiagotzen dute.” (Silva, 2017:12).

Testigantzetako emakume batek gobernuri botatzen dio errua eta hau jartzen du etsai nagusitzat:

“el mismo gobierno está en contra de nosotros y nos está tratando mal diciendo que nos oponemos al desarrollo de nuestras comunidades. Nosotros estamos conscientes y claros de que eso no es desarrollo. Les interesa explotar el bosque para hacer negocio. Vienen con mentiras de que nos van a realojar para que vivamos mejor, que nos van a dar luz gratis.” Catalina Hernández<sup>14</sup>, Lumaltik Herriak (2020:39).

Atal honi bukaera emateko, instituzioenganako inpunitate eta mesfidantza indize altuak kontuan hartuz, emakume defendatzaileek haien aurka egindako erasoentzako gertakarien aurrean jarritako denuntzien portzentaje nahiko esanguratsua azpimarratu nahi dugu: 2012an %52a izan zen, 2013an portzentaje hau %42 batera jaitsi zen eta 2014an berriz igo zen %58 batera (Informe IM-Defensoras, 2012-2014).

### **5.3. Marko pronostikoa: etorkizunari begira zeintzuk dira mugimendutik aurkeztu diren erronkak?**

Atal honetan, mugimenduak etorkizunari begira dituen erronkak, aldarrikapenak eta estrategiak azalduko dira. Begirada aurrera botatz, haien itxaropenak aipu honetan

---

<sup>14</sup> COPINH-eko (Consejo Cívico de Organizaciones Populares e Indígenas de Honduras) emakume sailaren koordinatzailea

labur daitezke: “me imagino ese mundo en el que las defensoras ya no tengan que andar defendiendo nada, que sea normal cuidar la naturaleza, que sea lógico decir ¡esta mujer necesita o quiere interrumpir un embarazo! Yo creo que no es inalcanzable, creo que es posible.” Zuleyma Arauz, Lumaltik Herriak (2020:102)

### 5.3.1. Erronkak

Erronkei dagokionez, orokorrean patriarkatuari, neoliberalismoari eta kolonialismoari egunerokotasunean aurre egitea erronka handia dela uste dute. Azken finean, marko diagnostikoan azaldu den moduan, sistema horrek egunerokotasunean modu desberdinetara erasotzen die eta uneoro horren aurka altxatu behar izaten dute beraien bizitzekin jarraitzeko.

Datuen analisisa egin ostean lau erronka nagusi atera dira. Hasteko, elkarrizketatu batek elkar entzutera iristea, entzute ariketa hau egiteko espazioak ematea eta horren bitartez haien artean antolatzea lorpen handi bat dela azpimarratzen du. Espazio horietan, eskubideak eta denuntziak exijitzea eta lehen aipatutako espazio horietan elkarri laguntza eskatu ahal izatea erronka dela aipatzen du. Beste parte hartzaile batek, bere erakunde lokala indartzean fokua jartzen dutela kontatzen du eta Euskal Herrian etorkinak izateagatik daukaten baldintzen borrokan jarraitzea erronkatzat hartzen du.

Bestalde, marko teorikoan aipatutako feminismo komunitario korrontearen komunitate ideia azpimarratzen dute bi elkarrizketatuk erronkei buruzko gaia ateratzean. Indibidualtasunarekin apurtu eta begirada kolektibotasunetik egin behar dela azpimarratzen dute. Borroka egiteko modu bakarra prozesu kolektiboak indartzean eta komunitatearen espiritua berreskuratzean datzala uste dute:

“creo que necesitamos trabajar el machismo dentro del colectivo LGBTI como para llegar a ser una comunidad donde el gay rico y profesional quiera y le duela que discriminen a una compañera pobre, puta, de la calle. Cuando eso suceda entonces vamos a ser una comunidad.” Stacy Velazquez<sup>15</sup>, Lumaltik Herriak (2020:92)

Erronken atalari bukaera emateko beste elkarrizketatu baten aipua ekarriko dugu, honek fokua adibidez berdintasunean jartzen du:

“lo que buscamos es el Buen Vivir<sup>16</sup>, donde todos y todas nos podamos relacionar con la naturaleza, porque al final es el centro. Por ella comemos, por ella vivimos; donde haya

---

<sup>15</sup> Guatemalako Organización OTRANS Reinas de la noche-ko kidea

<sup>16</sup> El Buen Vivir o Sumak kawsay es un sistema de vida que busca el bien común. Buen Vivir es integral, promueve la cosmoconvivencia y la complementariedad, la libertad y derechos de la naturaleza, la libre determinación de las personas y los pueblos, de las identidades, cuerpos, sexualidades y territorios; es colectivo y promueve el cuidado de la vida y el placer, amores, la alegría y las distintas maneras de expresarlo, así como el cosmocimiento senti-pensante.

una paridad entre hombres y mujeres, en donde todas y todos podamos convivir bajo las mismas condiciones.” Yamanik Cholotío<sup>17</sup>, Lumaltik Herriak (2020:109)

### 5.3.2. Aldarrikapenak

Elkarrizketatuei mugimendutik egiten dituzten aldarrikapenen inguruan galdetu ostean, argi azpimarratzen dute haien idealei berme izanaz beraien eskubideak defendatzen jarraituko dutela. Zapalduak izaten jarraitzen duten alorrak defenditzen jarraituko dute, batik bat: lurraren, gorputzen, sexu-ugalketaren, naturaren eta LGTBIQ+ kolektiboaren defentsa. Beste elkarrizketatu batek honakoa aipatzen du: *“para mí vas ser poner en el centro los cuidados y por qué unas mujeres y no otras, entonces para mí la racialidad las mujeres de dónde vienen, por qué dejaron, que cuentan, yo siento que son los ejes que más he luchado sin quitarle la fuerza a todas las demás.”* (E3) Baita ere, modu inplizituan bizitzeko eskubidea, belaunaldiz belaunaldiko sostengua, osasunerako eskubidea, duintasunez bizitzea eta pentsatzeko, sentitzeko eta baita bizitzeko beraien moduak errespetatzea eskatzen dute (de León, C. 2019).

Beste parte hartzaileetako batek, kalera atera eta protestatu ahal izatearen aldarrikapena egiten dutela azpimarratu du, hain zuzen ere Nicaraguan debekatuta dagoelako. Bestalde, kargu publikoetan gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna dagoela saltzen dutela kontatzen du, baina ez dela egia dio. Izan likete emakumeen izenak soilik paperetan egotea baina erabakiak hartzeko orduan emakumeek aukerarik ez daukatela azpimarratzen du. Aldarrikapenen harira beste hauek aipatzen ditu:

*“por ejemplo la despenalización del aborto. Estaba despenalizado antes del 2006 pero en ese año lo penalizaron nuevamente por un pacto que hizo el gobierno con la iglesia, es increíble el retroceso que tuvimos en cuanto al derecho de decidir de las mujeres. Y el tema de violencia de género han sido luchas colectivas como una constante del movimiento feminista.”* (E4, 32 urte Nikaragua)

### 5.3.3. Estrategiak

Etorkizunari begira zeintzuk erronka planteatzen dituzten aipatu ostean, horiek lortzeko mugimendu kolektibo modura zenbait estrategia ezartzea beharrekotzat hartzen dituzte. Horretarako, hiru estrategia nagusi identifikatzen dituzte: lehenengo multzoan aliantzak, sareak eta artikulazioa sartuko lirateke; bigarrenean, autozainketa eta sendaketa; eta hiru garrenean, ahizpatasuna.

Lehenengo multzoari dagokionez, estrategia politiko propioa izatea garrantzitsua ikusten dute, edozein ezbeharren edota aldaketen aurrean nola jokatu behar duten jakiteko: *“hemos agendado seguirmos acuerpando, seguir creando alianzas, seguir*

---

<sup>17</sup> Federación Guatemalteca de Escuela Radiofónicas-eko kidea

*resistiendo, seguir visibilizando las situaciones de nuestros grupos y de nuestras organizaciones.” (E1)*

Bigarren multzoan, autozainketan eta osatzean jartzen dute fokua, gaur egun haien artean zaintzarako espazioak saretzea garrantzitsua ikusten dute beraien osasunerako. Hori dela eta, autodefentsarako tailerrak eta segurtasun protokoloak dituztela kontatzen dute. Zuleyma Arauz-ek (Lumaltik Herriak, 2020:41) bere bizi esperientziatik honakoa kontatu digu: “guardamos nuestras medidas de seguridad, no publicamos dónde estamos, hemos aprendido a hablar por teléfono incluso en claves, hemos aprendido a tener rutas distintas, a tener una persona de confianza la que le digamos donde estamos.” Zuleyma Arauz, Lumaltik Herriak (2020:41) Elkarrizketatu berdinak autozainketaren garrantziaz nola ohartu diren kontatzen digu:

“en algún momento nos damos cuenta que nos está afectando la salud, las relaciones familiares, de pareja, de amistad, las laborales, y decidimos hacer una pausa. Y empezamos a conocer sobre autocuidado. (...) Estábamos teniendo problemas de salud y emocionales. Estábamos normalizando nuestra situación, nos dimos cuenta de que también era una manera de violentarnos a nosotras mismas. Y a partir de eso empezamos hacer un enfoque más integral, en el que también manejamos el autocuidado.” Zuleyma Arauz, Lumaltik Herriak, (2020:75)

Ahizpatasunari dagokionez, Aura Lolita Chavez-ek (Lumaltik Herriak, 2020:95) gainontzeko herrialdeetako emakumeekin edota beste feminismo batzuekin sareak sorraraztea ezinbestekoa dela adierazten du. Gaur egun, Lolita erbestean aurkitzen da herio-mehatxuak direla eta. Horrenbestez, beste borroka batzuk ezagutzeko aukera eduki du: “tenemos red de la vida. Yo fui a conocer a otros pueblos de otros territorios donde hay fuerza comunitaria. Y esa fuerza la estamos entrelazando. Yo ya me muevo en otros territorios y abrazamos otras luchas.” Lolita Chavez, Lumaltik Herriak (2020:95) Sare horiei esker emakumeen artean batasuna eta elkartasuna bermatu beharra dago, azken finean, gizakiak bestearen babesa behar izaten du indartsu sentiarazteko.

#### **5.4. Nola ikusten da *defensoras* mugimendua Euskal Herriko feminismoaren begiradatik?**

Atal honetan *Defensoras* mugimenduak Euskal Herriko teoria feministarekin edota gizartearekin daukan lotura aztertuko da. Mugimendu honek, bai Mesoamerikan eta baita Mesoamerikatik kanpo dauden eta haien borrokarekin identifikatuta sentitu daitezkeen pertsona, mugimendu, erakunde eta sektore desberdinengana heltzea bilatzen du. Mugimendutik ahalik eta audientzia kantitate handienera iristeko eta era berean jendeak haien borrokarekin bat egin dezan lortu nahi dute.

Lumaltik Herriak erakundetik #Defensoras kanpaina sortu zuten Mesoamerikako emakumeen erresistentzia ekintzak eztabaida publikora plazaratzeko eta hauen bizitza eta lurraldearen aldeko defentsa ikusarazteko. Emakume horiek pairatzen dituzten eguneroko biolentziak mahai gainean jartzea eta salatzea da honen helburua. Baita ere,



proiektu txiki honek euskal gizartearen eta *Defensoras* mugimenduaren artean aliantzak ezarri nahi ditu, egoera horiek salatu eta hausnartzeko bideari ekiteko, zaintza eta autodefentsa bezalako praktikak aurrera eramanez (*defensoras.org*, s.f.).

Aipatu den moduan, *Defensoras* mugimenduak euskal gizartearekin aliantzak sortzea eta euskal jendartea haien borrokan murgiltzea bilatzen duenez, atal honetan, Lumaltik Herriak erakundeko proiektuetan parte hartu duten lau euskaldunei egindako eztabaida taldetik ateratako emaitzak aurkeztuko dira, besteak beste aliantza hori nolakoa den eta mugimenduaren proposamena hemen euskal herrian nola ikusten duten aztertzeko asmoz. Horretarako, jasotako datuak eztabaida taldean egindako zazpi galderen bitartez banatuta daudela ohartu gaitezke.

A. *Nola ikusten duzue mugimendu honen proposamena, zuen testuingurua emakume zuri, herri garatu batekoa izanik?*

Talde eztabaidako kideak bat datoz mugimenduaren proposamena guztiz desberdina, interesantea, feminismoa ulertzeko beste modu bat bezala ikusten dutela aipatzen dutenean. Ideia hauek euskal gizartetik urruti daudela diote, adibidez, lurraren eta naturaren defentsa: *“feminismua ulerketako beste modu bat da adibidez kasu hontan asko eitxendala lurran eta naturan defentsa, Europako alde hontan bastante ahaztuta dakun iual etxeko lan bat izango zana.”* (ET 1) Mundua ulertzeko milaka modu daudela eta orokorrean mendebaldetik gutxietsi egiten ditugula aipatzen dute, batzuetan ezjakintasunetik ere bai. Horregatik ezinbestekoa ikusten dute, gure sinesmen zentrotik ateratzea eta beste ikuskera batzuk ezagutzea: *“zapatisten mugimendua ezagutu nuen momentutikan gerau nintzan flipatzen (...)esan miresmenetik ikusten detela bizitzeko modu hori.”* (ET 2, 21 urte)

B. *Ura, basoa, ama lurra, errekurtsio naturalak, animaliak, komunitatea, gorputz-lurraldearen defentsa... Aipatu ditudan zein elementurekin konektatzen duzue? Bestalde, zeintzuk dira, elementu horiek interpretatu eta haien mundu ikuskera ulertzeko duten moduari aurkitzen diozuen mugak edota arazoak?*

Parte hartzaileak bat egiten dute elementu guztiekin konektatzen dutela aipatzen dutenean baina gehienek uste dute Euskal Herrian gorputzarekin, lurraldearekin eta komunitatearekin konektatzen dela nahiz eta argi eduki, konexio hori mugimenduarekin konparatuz modu desberdinean ematen dela: *“gehien konektatu komunitatiarekin, gertuen sentitzen duguna da.”* (ET 3) Galdera honekin loturik, bi ideia garrantzitsu aipatzen dituzte. Alde batetik, borroka armatuaz geroztik, euskal gizartean gorputza hau da, nor garen, eta lurraldea (aberrria) oso presente daukagula. Bestalde, gorputzaren defentsa mugimendutik eta euskal gizartetik nola ikusten den konparatzeko orduan, gure gizartean gorputza plazerrarekin, sexualitatearekin, gorputz disidenteekin, identitate ez binarioekin gehiago lotzen dugula uste dute, eta ez hainbeste *defensorasek* naturarekin

egiten duten defentsa horretatik: *“zela gorpuztu bihar garen, zer izan bihar garen, komunitatia zela sortzen dan.”* (ET 4, 27 urte)

Bestalde, mugei eta arazoei dagokionez, denek bat egiten dute Mesoamerikako herrialdeekin alderatuz, mendebaldean kapitalismoan gehiago murgilduago gaudela eta bitzta filosofia horretatik urrutiago gaudela esaten dutenean: *“oso ezberdin bizi gea.”* (ET 2, 21 urte)

C. *Elementu horiek maila sinbolikoan geratzen dira edo maila praktikora eramaten dituzue?*

Aurreko galderan aipatutako elementuak maila sinbolikoan geratu ala praktikora eramateko saiakera egiten duen galdera antzerako erantzunekin osatzen dute. Parte hartzaileak bat datoz esaten dutenean beraien ustez, zenbait praktika aurrera eramaten dutela uste dutenean:

*“nere egunerokoan bai dakat oso presente birziklatzia noski, ahalik eta ur gutxien erabiltzia (...) ez det inoiz in aktibismoa basuengatik edo errekurtsio naturalengatik. Mobilizatu naiz gertatu izan dianian iskanbila naturalak ba Zaldibarrekua edo dana dalakua baina ezta gauza bat egia esan gehiegi edo iten detena horren babeserako.”* (ET 2, 21 urte)

Baina praktika horiek mugimendu honetako emakumeek egiten duten neurri berdinean gizarte modura aurrera eramaten ez dugula uste du parte hartzailetako batek: *“ez gara aiaitten eurak defenditten dauenan laurdena defendittera.”* (ET 1) Elementu batzuk praktikara eramateaz ahaztuta gaudela uste dute hemen euskal herrian, borroka desberdinak ditugulako mahai gainean eta egoera oso desberdinak direlako bizitzen ditugunak: *“han ura adibidez zentzu askotan pribaua da, hemen ezta pribaua, osea bai pagaitten dou gure kuatatzua baina ezta pribatizauta momentuz ura, orduan guretako bebai borroka hori ein baten superauta dau.”* (ET 4, 27 urte)

Gehiago esateko, beste parte hartzaile batek Txilen egondako bizipena ekartzen du esanez hango feminismoan adibidez, emakumearen askapena animaliaen askapenarekin batera loturik ikusten dutela eta beraz denak praktikan jartzen dutela begetarianismoa edo beganismoa, aldiz, hemen hori ez da gertatzen: *“ezeieben ulerketan emakumearen askapena animalixan askapena barik osea ia naturalizauta dau (...) feminismua ulerketako modu oso desberdin bat da.”* (ET 1, 24 urte)

D. *Nola uste duzue uztartu ahal dela ikuspegi hau hemengo jendearen bizitzetan? Egunerokotasunean uztartzea posible ahal da? Posible ikusten ez duzuen kasuan, zeintzuk dira aurkitzen dituzuen zailtasunak, aldeak etab.?*

Orokorrean parte hartzaileak bat datoz *defensoras*-en ikuspegia euskal jendartearen bizitzetan txertatzea ezinezkoa dela esaten dutenean. Haien mundu

ikuskeraren eta orokorrean pentsamoldearen marko osoa txertatzea ezinezkoa ikusten dute. Gure modelo ekonomikoa (produzitu-kontsumitzeko) oztopo handi bat bezala ikusten dute: *“inposibilia da, hemen sistema kapitalista batean bizi gara totalmente, jendia etzeben konbentziuko.”* (ET 4, 27 urte)

Baina eskala handietara eramane beharrenean, haietako batzuk bai azpimarratzen dute praktika txikiak ekarri eta hemen moldatu daitezkeela. *Defensoras*-en ideiekin lotura egiten dute, adibidez elikadura burujabetza sustatzearekin eta ur kantitatearen galeraren kontzientziazioarekin eta praktika horiek hemen Euskal Herrian ere egiten direla kontatzen dute. Praktika txikiekin loturik, azoken eta baserritarren gaia mahai gainean jartzen du batek. Horren harira, komertzio lokalei eta azokei garrantzi eta protagonismo gehiago eman beharko liritezkeela uste du: *“Deban astian behin bakarrik dago azoka, ez dagoelako herrian ere ohitura hori azokara jutekua, jungo bagiña askoz gehio hasiko zitzaigun inportatzen bertako lurretan zer gertatzen dan baina dakagun ez onduan Eroski etzaigu inporta.”* (ET 2) Beste praktika bat birziklapena dela azpimarratzen dute. Haietako batek uste du birziklatzea gure gizartean barneratuagoa dagoela kontzientziazio prozesu bat eman delako. Mesoamerikan birziklapenaren gai honek seguraski kezkatuko diete baina orokorrean, garapen bidean dauden herrialdeak izendatzen duten lekuetan ez daukate lehen munduan ditugun adina baliabide praktika horiek aurrera eramateko.

*Defensoras* mugimenduaren ikuspegiari buruz galdetu ostean, identitatea eta erresistentzia borroka bezalako gaiak atera dira eta horrekin batera, parte hartzaileek abertzaletasunaren gaia jarri dute mahai gainean. Hemengo borroka eta euskal identitatea Euskal Herriko txoko batzuetan ahaztuta dagoela ematen duela uste du batek: *“batzutan mugitzen zera eta ez dago Estatu espainiarrak gure herriari iten dion zapalkuntzaren kontzientziarik.”* (ET 2) Honen arrazoietako bat indibidualismoa izan litekeela mahai gaineratzen du. Baita ere gaur egun, euskal gizartea oso anitza dela azpimarratzen dute eta beraz, abertzaletasuna zuria ez dela eta bertan identitate anitzak sartu behar direla uste dute: *“euskal herritarrek ia ez gara bakarrik zurixak eta ia eztaqu karakteristika konkretu batzuk.”* (ET 4) Gehiago esateko, *defensoras* mugimenduko ideia bat komunitatea da, ama lurrarekin komunitatean bizitzea neurri berdinean bai elementu natural guztiekin eta baita izaki bizidunekin. Horrekin lotura eginez, parte hartzailetako batek, abertzaletasuna komunitatea sortzeko bide bat izan dela eta gizarte modura borroka desberdinak aurrera eramateko posibilitatea handitu duela azpimarratzen du:

*“garai batean abertzaletasuna komunidadia sortzeko era bat zan eta horren barruan borroka ezberdinak etorten zian, nuklearran kontrako burruka (...) kontzientzia galdu dugu eta eztaqu presente Lolita Chavezek daukon mouan presente ¡que si me matan en el Amazonas muero yo! eta ia da literal.”* (ET 4, 27 urte)

Lehen aipatu dugun moduan, borroka hori hain presente ez daukagula pentsatzen dute. Aldiz, aipuan islatuta ikusten den moduan emakume defendatzaileak oso presenta daukatela uste dute, erasoak egunerokotasunean bizitzen dituztelako.

E. *Zenbateraino egiten digute ekarpena gure feminismoan txertatzeko? Zein muga eta kontraesan aurkitzen dituzue?*

Mesoamerikako feminismoak euskal feminismoan egiten dituen ekarpenen harira, lau ekarpen identifikatzera ausartu dira parte hartzaileak. Lehendabizi, aurreko galderan aipatutako elementuei buruz (lurraren, naturaren, uraren eta basoen defentsa) hausnartzera gonbidatzen gaituztela uste dute.

Ezinbesteko bigarren ekarpen modura ikusten dute, mendebaldekoak garenok barruan daukagun arrazakeria ikusi, analizatu eta eraldatzeko gonbidapena egiten digutenean:

*“neretako inportantienea eta salda badagoko horri tiraka inportantienea da interpelautu sentittia eta uste dot momentu honeittan hori dala eiiten gabitzena, eskerrak jente honek berba ein dauen ba euki dou aukeria guk bebai barruan dakagun razismua ikusi eta analizau eta eraldaketako.”* (ET 4, 27 urte)

Adibidez hau bera gertatu zen Salda Badagoko V. Jardunaldiko mahai batean. Pertsona arrazaliazatuen gaiaren harira, haiei pertsona arrazaliazatuen erreferenteak edukitzen uzten ez diegula eta hemen borroka desberdinak aurrera eramateko orduan, prentsa aurrekoetan etab, ondo geratzeko haien aurpegiak erabiltzen ditugula pentsatzen dute.

Hirugarrenik, haien ekarpenari esker pribilegioen gaia mahai gainean jartzen dela uste dute, pribilegio horiek zalantzan jartzeko aukera emanez: *“onarketia hau dala nere pribilegioetatik dakoten borrokia, Orduan ia horrek posiziño baten jarten dotzu konstiente izan biar zara bai zure gainetik jentia dauala eta zure azpitxik be jentia dauela.”* (ET 4, 27 urte)

Laugarren ekarpen modura, denok eskubide berdinak izatea dela esaten dute. Nahiz eta momentu desberdinetan bizi eta borroka desberdinak eduki, eskubide berdinak izatea lehendabizi eman beharreko pausua dela uste dute: *“eskubide horiek ahalik eta berdintsuenak izan behar dia.”* (ET 4) Beste parte hartzaile batek honakoa aipatzen du: *“geratzen zaigu entzutia, beraieri espazioak ematia ikastia hortatikan ze dakabe pilo bat gauza guri erakusteko.”* (ET 2, 21 urte)

Feminismo bien arteko muga eta kontraesanei dagokionez, ez dute jakin adierazten zeintzuk izan litezkeen baina bai uste dute kontraesan asko daudela feminismo bien artean.

F. *Zenbateraino egiten diegu guk haiei ekarpena?*

Euskal feminismoak Mesoamerikan egiten duen ekarpenari buruz galdetu diogunean, orokorrean asko kostatu zaie galdera honi erantzutea eta haietako bat

zuzenean ez da ausartu ezta galdera erantzutera. Parte hartzailetako bat, Salda Badagoko V. Jardunaldian bi mugimendu feministen artean ekarpenak eman zirela esatera ausartu da:

*“salda badagon izan zan kolektibo razializatu batek esan otzan mugimendu feministari ez gebiltzela kontuan hartzen gainontzeko jente arrazializaua. Gatazka horren ostian egon zian bi aldien arteko ekarpenak, mugimendu feministiak hartuxau gai honeri eta dabil zeozer eitten mugimendu feminsta mouan, hausnarketetako eta praktika hobe batzuk itteko.”* (ET 4, 27 urte)

Galdera horren harira, beste parte hartzaile batek haien borroken eta gure borroken artean antzekotasun batzuk aurkitu ditu, hizkuntza minorizatuen aldeko defentsari lotuta, euskararen kasua adibidez: *“herrialde originarixotan eta asko dakoie euran hizkuntzia behin eta berriz dabiz zapalketan, txikiketan, hiltten dabitz ixa egunero hizkuntza pilo bat orduan hor badakula antzekotasuna baina eske kasuistikak oso ezberdinak dia.”* (ET 4, 27 urte)

Parte hartzailetako bi ados daude, hemendik hango ekarpena egiterakoan, agian entzutera eta bigarren plano baten geratzera mugatu dela esaten dutenean eta hori horrela izanik, gure pribilegioei begiratzuz momentu honetan posizio hori hartzea tokatzen zaigula: *“pribilegiotatik guk daku askoz geixau ikasteko handik hona eurak guregandik baino, guk dakagu dana eta gu gabitz eurak zapaltzen eta boteriak markaitten.”* (ET 4, 27 urte)

## 6. ONDORIOAK

Ikerketa honetan burututako gaiari bukaera emateko, atal honetan marko teorikoa, ikerketa enpirikoan jasotako datuak eta ikerketan lortu nahi ziren helburuak analizatu ostean atera diren ondorioak aurkeztuko dira.

Lehenengo helburuan, mugimenduaren oinarri teoriko feminista aztertu da. Honi dagokionez, *Defensoras* mugimenduak bi teoria feministan oinarria daukala ikertu da, ekofeminismoan eta feminismo komunitarioan. Alde batetik ekofeminismoan dauka funtsa, feminismoaz eta ekologiaz arduratzen delako, hau da, emakumeaz eta naturaz eta ondorioz bi elementu horiek pairatzen dituzten zapalkuntzekin amaitzea bilatzen du. Marko teorikoan aztertu dugun moduan, Shiva-k naturak egunero sufritzen duen erasoak emakumeak sufritzen duenarekin konparatu daitekeela azpimarratzen du. Ikerketa enpirikoan, mugimendu honetako emakume defendatzaileak ideia honekin bat datozela ikusi dugu. Naturaren defentsa egiten dutela eta baita, natura eta gainontzeko izaki bizidunak komunitateko kide direla eta zerbait osoa sortzen dutela ondorioztatu dugu. Beraz, esan genezake mugimendu hau osatzen duten emakumeak ekofeministak direla.

Elkarrizketetan eta baita emakume defendatzaileen testigantzetan emakumeek etxeko lan karga handiak dituztela aipatu dute. Hori dela eta, etsaiak emakumeen aurka joaten direla aipatu dute, jakin badakitelako familiaren sostengua direla eta ondorioz, sistemagatik itota daudela uste dute. Agarwal autoreak baita ere, emakumea zaintza lanetan zokoratuta dagoela uste du eta hain zuzen ere emakumeak naturarekin daukan lotura estuaren abiapuntua zaintza lanekiko rola edukitzeagatik dela aldarrikatzen du.

Baita ere, Shiva eta Mies-ek (1997) *Ecofeminismo* liburuan errekurtsio naturalak mugagabeak direla eta horiek abantailak ekartzen dituztela diskurtsoaren aurka agertzen dira. Emakume defendatzaileen testigantzetan ikusi ahal izan dugun moduan, diskurtso horiek arbuiatzen dituzte. Gobernuak saltzen dieten promesa faltsuak gezurra dela badakite eta horren aurrean alternatiba propioak sortzen saiatzen dira.

Bestalde, mugimenduak feminismo komunitarioan ere funtsa badaukala ikusi dugu, besteak beste, gorputz indigenetatik errotutako pentsamendua delako eta feminismo hegemoniko zuria deuseztatzen duelako. Cruz Hernandez autoreak azpimarratzen duen moduan, feminismo komunitarioak feminismo hegemonikoaren ahultasunak eta kontraesanak agerian uzten ditu, hori da hain zuzen ere emakume hauek mugimendutik egiten dutena. Gainera, emakume hauek, ez dute ikusten komunitatea propietate pribatu bezala sistema neoliberalak ikusten duen moduan eta ondorioz haien praktika politikoak ber antolatzen dituzte eta estraktibismoak ekartzen dien narriadurari erantzuna ematen saiatzen dira.

Paredesek azpimarratzen duen moduan, feminismo komunitarioak defendatzen duen komunitate kontzeptutik, banakotasunen batuketa ezabatzeko proposamena egiten dute, zerbait osoa eta dinamikoa sortzeko. Elkarrizketetan eta baita eztabaida taldean komunitateari buruz hitz egiten dutenean, autorearen proposamenarekin bat datozela ikusi dugu. Behin eta berriz aipatzen dute indibidualtasunak arazoak soilik ekartzen dituela. Hori dela eta, indibidualtasunetik kolektibora salto eginez soilik sistemako arazoei aurre egin eta aurrerapausoak ematea lortu daitekeela uste dute.

Bigarren helburuan mugimenduko elementuak aztertu dira mundu ikuskera eta pentsamoldea sakontzeko. Mugimendutik, basoen, uraren, errekurtsio naturalen, animalian etabarren defentsa egiteaz aparte, gorputz-lurralde-lur defentsaren kontzeptua defendatzen dute. Gorputza gizakion lurraldea dela eta hau zaindu beharra dagoela uste dute. Ez dute gorputza zerbait materiala bezala soilik ikusten, hainbat elementuz (burua, ezagutzak, pentsakerak etab.) osatutako multzo bat bezala baizik. Gorputza ibilgailu adierarekin ere defendatzen dute, lurraldearekin eta beste elementuekin erlazioan dagoen motorra bezala. Kontzeptu honi dagokionez, gaur egun galderak planteatzen eta hausnartzen jarraitzen dute.

Hirugarren helburua dagokionez, mugimenduaren dimentsio ekintzailea deskribatzea lortu da. Mugimendu hau solidoa eta zeharkakoa dela eta aurrera eramaten duen borroka ibilbide luzekoa dela ondorioztatu da. Mugimendua hain handia ez izan arren, potentzia handia daukala ikusi da, Mesoamerikako herrialde desberdinetako erakunde asko batzen dituelako, guzti horien saretzea eta artikulazioaren lana burutuz. Honen motibazioa aurrera jarraitzeko, bertako giza eskubideen defendatzaileen biolentzien hazkuntzari herrialdeko erantzun osoa ematea da eta horrenbestez, lan honek eskatzen duen errekonozimendua eta ikusgaitasuna nahi dute.

Errealitatearekiko egiten duten diagnostikoari dagokionez, proiektu estraktibistak multiplikatu, Latinoamerikako poblazioaren giza eskubideak urratu eta ondorioz borroka sozialak areagotu direla esan dezakegu. Horretaz aparte, Mesoamerikako munduko erailketen indize altuenetarikoak dauzkala ere ondorioztatu da, Guatemalaren, Hondurasen eta Mexikoren kasuan feminizidioa handiagotu baita. Mugimendutik egiten duten diagnostikotik arazo asko dauzkatela ikusi ahal izan dugu, alde batetik esparru materialean eragiten dizkietenak (deforestazioa, basoen eta uraren pribatizazioa, komunitateen espoliazioa,...) eta beste aldetik, esparru kultural-sinbolikoan eragiten dizkietenak (gaixotasunak, migrazio behartua, desintegrazio familiarra,...). Arazo hauei aurre egitea zaila dela uste dute, sistema kapitalista neoliberallean, kolonialismoan eta patriarkatuan oinarritutako praktika politikoak aurrera eramaten jarraitzen dutelako aktore estatalak. Haien gorputzak zeharkatzen dituzten hiru ardatz nagusi horiei, (kapitalismoa, kolonialismoa, patriarkatua) egunerokotasunean aurre egitea eta haien eskubideen alde borrokatzea erronka handia dela ondoriozta dezakegu. Ez dute esperantza galtzen eta haien aldarrikapenak LGTB+ kolektiboen, naturaren, lurraren, gorputzen....defentsa etorkizuneko erronka bezala hartzen dute.

Laugarren helburuan, mugimendu honek Euskal Herriko teoria feministarekin edota gizartearekin zer-nolako lotura daukan aztertu da. Honi dagokionez, mugimendua zeharka beste herrialde batzuetara iritsi dela ondorioztatu dugu. Beste herrialde batzuetan ere borroka antzerakoak bizitzen dituzte eta ondorioz elkarren ezagutza eta elkartasuna daukate. Adibidez, euskal gizartearekin lotura estua dauka Lumaltik Herriak elkarteak egiten duen lanari esker, hango gaiak hemengo gizartera ekartzeko apustua eta hemendik emakume horiei elkartasun osoa emateko lana egiten duelako.

Mugimenduak Euskal Herrian daukan inpaktuari dagokionez, feminismo trukaketak bien partetik ematen direla ikusi da, feminismo zuriak dituen pribilegioak analizatzeko aukera ematen dute hau bezalako mugimenduen ikuspegiak, gure arrazismoa ikusi analizatu eta eraldatzeko. Bestalde Euskal Herrian eman diren borroka txikiak hizkuntza minorizatuari dagokionez edota gure identitate euskalduna bermatzeko eman diren aurrera pausoak haien borrokekin antzekotasuna izan ditzakeela ikusi da eta horrenbestez haiek gure praktika batzuk ekarpen modura har dezaketela ondorioztatu da. Bestalde, hemendik harako ekarpena entzutera eta bigarren plano batean geratzera mugatu dela ondorioztatu da, momentu honetan gure lekua hori dela eta beraiengandik ikasteko asko daukala ikusi delako.

Laugarren helburuarekin lotuta, mugimenduak eskaintzen duen ikuspegi edota bizitza filosofia euskal gizartean txertatzea ezinezkoa dela ondorioztatu da, mendebaldean sistema kapitalista baten murgilduago gaudelako eta ezinbestekoa den komunitatearen filosofia apurka deseraikitzen ari delako indibidualtasunaren ondorioz. Bizitza proiektua osorik txertatzea ezinezkoa ikusi den arren, proiektu horretako praktika txikiak ekarri eta hemen moldatzea posible dela ondorioztatu da. Elikadura burujabetza, birziklapena edota ur kantitatearen galera kontrolatzea bezalako praktika txikiak euskal gizartean kontzientziazioaren bitartez murgilduta ditugula ikusi da. Adibidez, nahiz eta asko sustatzen ez den arren, Euskal Herrian astean behin bada ere herrietan azokak egiten dira produktu lokalak kontsumitzeko eta baserritarren lehengaiak herrietara ekartzeko helburuarekin.

Gehiago esateko, mugimendua euskal herrian ezagutaraztera iristen da eta gainera interesgarriztat jotzen da baina hala ere, orokorrean gure gizartetik oso urruti geratzen den alternatiba bat bezala ikusten dela ondorioztatu da. Hori gainditzeko eta mugimenduak proposatzen dituen praktikak aurrera eramateko, komunitate baten indarra atzean egotea ezinbestekotzat ikusi da eta hori Euskal Herriko borroketan urteetan zehar ikusi ahal izan den faktore bat izan dela esan dezakegu.

Bukatzeko, hemen euskal herrian burutzen diren borroka txikiak, “nuklearrik ez” plataforma edota adibide bi ematearren uda honetan burutu diren, Atxondoko abiadura handiko trenaren aurkako akanpada eta Arteako iraultza txikien akanpadak argi erakutsi dute zenbait egunetan sortu duten egoera desberdinen aurrean borrokatzeko indar kolektibo hori, komunitate baten sena osatzearen esker izan dela.



## 7. ERREFERENTZI BIBLIOGRAFIKOAK

Agarwal, Bina (1999): “Negociación y relaciones de género: dentro y fuera de la unidad doméstica”. *Historia Agraria* [On-line] 17, 13-58, eskuragarri hemen: [https://ddd.uab.cat/pub/artpub/1998/181721/hisagr\\_a1999n17p13.pdf](https://ddd.uab.cat/pub/artpub/1998/181721/hisagr_a1999n17p13.pdf) [Kontsulta eguna: 2021/05/06].

Aguinaga, Margarita; Lang, Miriam; Mokrani, Dunia eta Santillana, Alejandra. (2011). “Pensar desde el feminismo: Críticas y alternativas al desarrollo”. *Fundación Rosa Luxemburg*, Quito: AbyaYala [On-line], eskuragarri hemen: <file:///C:/Users/GOTZON/AppData/Local/Temp/Pensardesdeelfeminismo-criticasyalternativasaldesarrollo.pdf> [Kontsulta eguna: 2021/05/12].

Altuna, M. A. (2009). Eztabaida taldeak eta ardatz taldeak. *Gizarte lanean erabilitako metodo, teknika eta dokumentoak*, 7.

Amnistía Internacional (2016). Defendemos la tierra con nuestra sangre: Personas defensoras de la tierra, el territorio y el medio ambiente en Honduras y Guatemala, eskuragarri hemen: <https://www.amnesty.org/es/documents/amr01/4562/2016/es/> [Kontsulta eguna: 2021/11/9]

Ávila, Aitziri (2016). “Las mujeres defensoras y los retos en la defensa de los derechos humanos”. *Revista mensual de la Comisión de de Derechos Humanos del Distrito Federal* [On-line] 1, eskuragarri hemen: [http://www.cd hdf.org.mx/wp-content/uploads/2014/05/dfensor\\_01\\_2016.pdf#page=6](http://www.cd hdf.org.mx/wp-content/uploads/2014/05/dfensor_01_2016.pdf#page=6) [Kontsulta eguna: 2021/05/16].

Barcia, I. (2017). Defensoras de derechos humanos confrontando a las industrias extractivas. Un panorama de los riesgos críticos y las obligaciones en materia de derechos humanos. *Asociación para los Derechos de las Mujeres y el Desarrollo (AWID) y Coalición Internacional de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos (WHRDIC)*. eskuragarri hemen: [https://www.awid.org/sites/default/files/atoms/files/sp\\_whrd\\_confronting\\_extractive\\_industries.pdf](https://www.awid.org/sites/default/files/atoms/files/sp_whrd_confronting_extractive_industries.pdf) [Kontsulta eguna: 2021/05/07].

Berger, Peter L., Luckman, Thomas (1968). “La construcción social de la realidad”. *Papers: revista de sociología* [On-line] 1, 181-183, eskuragarri hemen: <https://ddd.uab.cat/pub/papers/02102862n1/02102862n1p181.pdf> [Kontsulta eguna: 2021/05/07].

Cabnal, Lorena (2010). Acercamiento a la construcción de la propuesta de pensamiento epistémico de las mujeres indígenas feministas comunitarias de Abya Yala. *Momento de paro Tiempo de Rebelión* [On-line] 116, eskuragarri hemen:

<https://elizabethruano.com/wp-content/uploads/2019/07/Cabnal-2010-Propuesta-de-Pensamiento-Epistemico-Mujeres-Indigenas.pdf> [Kontsulta eguna: 2021/05/18].

Cabnal, Lorena (2016): *Feminismos diversos: el feminismo comunitario*. ACSUR, *Asociación para la cooperación con el Sur*, Las Segovias, eskuragarri hemen: <https://porunavidavivible.files.wordpress.com/2012/09/feminismos-comunitario-lorena-cabnal.pdf> [Kontsulta eguna: 2021/05/18].

Cabnal, Lorena (2017). “Tzk'at, Red de Sanadoras Ancestrales del Feminismo Comunitario desde Iximulew-Guatemala”. *Ecología Política* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.ecologiapolitica.info/?p=10247> [Kontsulta eguna: 2021/05/18].

Callejo, J. (2001) *El grupo de discusión: introducción a una práctica de investigación*. Barcelona: Ariel

Carrera Maldonado, Beatriz eta Ruiz Romero, Zara (2016). *Abya Yala Wawgeykuna. Artes, saberes y vivencias de indígenas americanos*. Espainia: Enredars

Castaño, Carlos eta Quecedo, Rosario (2002). “Introducción a la metodología de investigación cualitativa”. *Revista de psicodidáctica* [On-line] 14, 5-39, eskuragarri hemen: [file:///C:/Users/GOTZON/AppData/Local/Temp/Introduccion a la metodologia de in vestigacion cua.pdf](file:///C:/Users/GOTZON/AppData/Local/Temp/Introduccion%20a%20la%20metodologia%20de%20investigacion%20cua.pdf) [Kontsulta eguna: 2021/06/001]

Choque, María Eugenia eta Mendizabal, Mónica (2010). “Descolonizando el género a través de la profundización de la condición sullka y mayt'ata”. *Tinkazos* [On-line] 28, 81-97, eskuragarri hemen: [http://www.scielo.org.bo/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S1990-74512010000100005](http://www.scielo.org.bo/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1990-74512010000100005) [Kontsulta eguna: 2021/06/16]

Cobo, Rosa (2005), “Globalización y nuevas servidumbres de las mujeres”, *Teoría feminista: de la Ilustración a la Globalización. De los debates sobre el género al multiculturalismo*, Celia Amorós y Ana de Miguel (eds.), Madrid, Minerva ediciones S.L.: 215-264.

Colectivo miradas críticas del territorio desde el feminismo (2014). *La vida en el centro y el crudo bajo tierra. El Yasuní en clave feminista*. Quito, Ecuador.

Cruz Hernández, D.T. (2016). “Una mirada muy otra a los territorios-cuerpos femeninos”. *Solar: Revista de Filosofía Iberoamericana* [On-line] 12(1), 35-46, eskuragarri hemen: <http://revistasolar.org/wp-content/uploads/2017/07/3-Una-mirada-muy-otra-a-los-territorios-Cuerpos-femeninos.-Delmy-Tania-Cruz-Hern%C3%A1ndez.pdf> [Kontsulta eguna: 2021/05/08]

Cruz Hernández, D.T. (2020). “Feminismos comunitarios territoriales de Abya Yala: mujeres organizadas contra las violencias y los despojos”. *Revista Estudios*

*Psicosociales Latinoamericanos* [On-line] 3(1), 8-202, eskuragarri hemen: <https://journalusco.edu.co/index.php/repl/article/view/2581/3907> [Kontsulta eguna: 2021/05/08]

Curdo, Azul. (2017). “El grito de la Pachamama: ser mujer y defensora del ambiente”. *Viento Sur* [On-line], eskuragarri hemen: <https://vientosur.info/el-grito-de-la-pachamama-ser-mujer-y-defensora-del-ambiente/> [Kontsulta eguna:2021/05/10]

Curiel, Ochy (2007). “Crítica poscolonial desde las prácticas políticas del feminismo antirracista”. *Nómadas* [On-line] 26, 92-101, eskuragarri hemen: <https://www.redalyc.org/pdf/1051/105115241010.pdf> [Kontsulta eguna:2021/05/14]

Daly, Mary. (1978). *Gyn/Ecology: The Metaethics of Radical Feminism*. s, Boston: Beacon Press.

